TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1 9 8 5.ko Abendua 14.z e n b.

URTE BERRI ON !

non-zer

1.- BERRIAK.
2.- ARREGI, ALMERIA, ZABALZA.....
14.- BAZTAN-BIDASOAKO EKONOMIA (eta II).
18.- ADIZU, EUROPEARRAK GARELA.
20.- DROGA "HEMEN BIZI DA".
22.- MENDAUR.
23.- OSASUN ZENTROA.
24.- ESTER FERNANDEZ NARRAZKILARIA.
28.- HERRI TXIKIAK GALTZEN ARI DIRA.
29.- GAUR AURKITU DUDANA.
30.- ERROTAREN BERREHUN URTEAK.
31.- EUSKAL HERRIAN GAUDE.
32.- ARTZAIEN BIZIA.
33.- ZAHAR HITZ, ZUMUR HITZ.
34.- OLERKIAK.
36.- LANGILE ALPERRA.
38.- BIDASOAKO BERTSO PAPER LEHIAKETA.
40.- D[illegible]A.EGKO KOPLARIAK MUTU?
42.- BERTSOAK.

TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

BAZTAN

EUSKAL TELEBISTA.

Baztanen Euskal Telebista nahi dugu. Horregatik orain dela denbora gutxi bilera batzuk egin genituen. Aukeratu genituen arduradun batzuk lana hori aurreratzeko. Arrazoirik handiena diruarena da, errepikagailu saltzaileak dirua nahi duelako berehala, diru aurreratzailek bilatzera behartuak izan gara.

Legaten eta Bailadako mendietan probak egin behar dira errepikagailuarekin, aukeratzeko bietatik hoberena. Aukeratu ondoren, argia eraman behar da. Hau izan daiteke hurbil dagoen baserri batetatik hartzea. Errepikagailuaren ondoan txabol ttiki bat ere beharrezkoa da tresnak gordetzeko. Argia lurpetik eramango da, lurebaki edo zanjaren bidez.

Lur-ebaki honek baserritik errepikagailuaraino izanen da. E.T.B. ikusi nahi duenak, antena jartzea eta etxe batzuetan anplifikadorea ere, beharrezkoa izanen da.

Bat izango litzateke Bailei mendian (Elizondo, Elbetea, Aniz, Ziga, Gartzain, eta Iruritarentzako) beste bat, Baztangoizan (Arizkun, Erri tzu, Amaiur eta Azpilikuetarentzako), beste Basaburuan (Almandoz eta Berrueta) beste bat berriz Arraiozentzako eta azkenekoa Mugairerentzako.

Udaletxeak ez du diru laguntzarik ematen, nahiz eta pleno batean erabaki, telebista guztiak ikusteko aukera behar zela eta hortarako, urteko presupostuetan diru partida bat eduki.

Honi dagozkion gastuak ordaintzeko diru iturria, berriz ere herrikoia izango da, eta ekintzari jo beharko diogu (tabernak herriko festetan, rifak, gaupasak, e.a.). Antolatzen den guztira etorriko zaretelakoan gelditzen gara. Euskal Herrian euskaraz.

BAZTANGO IKASTOLAREN SOLUZIOA.

Urte askoz tiraka eta tiraka ikastolakoak leku desegoki eta hestuetan klaseak ematen ibili dira. Orain dela bi urte, egoera hau larriagoa bihurtu zen lekurik inon ez zuten aurkitzen eta.

Honen ondorioz, gurasoek udaletxearen laguntza eskatu zuten, ikastola berri bat edo leku egoki bat aurkitzeko. Baina udaletxea ez zen mugitzen, denbora pasa eta haurrak kanpoan zeuden. Diputazioarilaguntza eskatu eta erantzun zuen ez zela Ikastola berri bat egiten ahal, Baztanen bazirelako ikasgela ausark haur guztientzat. Honela, Baztango lehendabiziko borrokak eta gorrotoak hasi ziren.

Arazo handia zela eta, soluzio bat bilatu nahian Diputazioak interes preferentea eskeini zuen erosketaren ehunetik 50 ordainduz.

Horrelako abantailak eman arren, Udaletxeak ezetz zion eta Pilarra ez erosteko edozein gezurra asmatzen zuen, egoera lotsagarria benetan!.

Negoziaketak aurreratzeko Ikastolako gurasoek kanpaina bat egin zuten. Bertan, zenbait ekintza eginez: manifestaldiak, pankartak jartzea, firmen bilduma eta udaletxearen aurrean «gure herrien haurrentzat leku egokia eta euskara Baztango hizkuntza da» moduko slogan batzuk oihukatzea.

Eztabaiden ondoren eta negoziaketak jarraitzeko, gurasoen erabakia udaletxeak ordaindu behar zuen 50 horretatik, 25 ordaintzea izan zen.

Azkenean, Udaletxeak, nahiz eta bakarrik 25 ordaindu behar izan ezetz zioen. Dirurik ez zelako arrazoia sinesgaitza zen, Udaletxea konpontzeko 60.000.000 bait zuten.

Udaletxearen arrazoi bakarra euskararen aurka jokatzea zen. Baztango jende guztia bi taldetan banatu zen eta Diputazioan ere nardatuta zeunden. Bi urtez borrokatu ondoren haurrentzat leku egoki bat lortzeko nahian Pilarraren erosketa erabaki zen.

Ikastola berri bat lortu dugu baina arazo honek aztarna asko utzi ditu, Udaletxearen Kaxkarkeriz.

Abenduko 9an haurrak gurasoek lagundurik altxaferu eta txistukin ospatuz Pilarrean sartu ziren.

ZUBIETA

PRIMERAN GOAZ

Urte honetan, gure herriko parke mobila berritu egin da. Dena hasi zen Bordatxoko kotxe-zozketa egunean, Zubietako Barrakilo bati tokatu zitzaion eta...

Ordu ezgeroztik gure herriko jendea kotxeak aldatzen hasi da. Bordatxoko Peugeot 205-ak eman zuen hasiera, gero marka guztietako kotxeak bete dute gure parke mobila. Hasi Seat Trans, Malaga, pasa Land Rover, Nissan Patrol, Horizon, Furgoneta Mercedes,... eta laugarren eskuko 4L bat edo beste,... eta gure Juantzoren kotxe zoragarriraino, Renault 30, frantsesa. Hau duk hau gure herriko krisisa. Sartu primera, segunda eta goazen Bordatxora, Polo kotxea ekartzera.

EGIA ALA INOXENTADA

Inoxente egunean broma asko jasan ditugu, baina nork espero zuen egun honetan boda bat? Jose Antoniok broma asko egin ohi ditu inoxente egunean eta orain egun hori ezkontzeko ez duba aukeratu? Sinetsi? Denok serioski hartu dugu baina, inoxentada bat baldin bada?

ARTZAIAK,URA BEHAR OTE?

Pe, pe, pe, pe...drooo, ura ja, ja, ja, jarrri duk! Malkorraren erditik hartu, ia bi kilometrotako tuboa lurpean sartu zure txaleta eta Patxikuren Borraldako bordaraino... eta hi, egarria kentzeko, biter eta solisonbra. Bibbbbba rusiiikomunissssimo!

BEHATZ USTELA

Ai Mikel!,Mikel! ez da gauza onik! Nori gogoratzen zaio hatzaparra harri azpian paratzea? Hau fundamentua!

Gaur Iruiñera, heldu den astean ere bai, hurrengoan baita ere, eta hurrengoan eta hurrengoan...Eta honela joan deneko hiru edo lau hilabetetan! Ez sendatzen gerooo!

Zer da azkenean burni puska paratu beharra behatzean, Colon bezala ibili beharko, ez ziagok besterik! Tira, beste batzuk eskurik gabe bizitzen dituk ma...

SANTXOKO RASKAZIELOSA

Zubietarra bazara, fijo ezagutzen duzula. Eta zure degraziz zubitarra ez bazaera ere, ezagutuko...zubia pasa ondoren ikusten den aspaldiko partez, bukatu gabeko etxeaz ari gara. Bost urte pasa dira eta, itxuraz, konpondu dira, nola edo hala... halako batetan bukatuko dute Zubietako Eskoriala!!!

Eta bukatzeko, bromak aparte utzirik hara hor:

ZUBIETAKO HERRIAK EGITEN DUEN SALAKETA

Herri guzitan bezala hemen ere baditugu oker-bidez jokatzen dutenak. Azaroko astelehen goiz batetan, 25ean hain zuzen, harriturik gelditu ginen herriko zubian bi harri eder falta zirela ikustean. Denok pentsatu dugu igande gaueko iluntasunean anparatuz norbaitek bere txarkeria aurrera eraman zuela. Baina gaizkileak lehenago edo geroago erortzen dira, ez badizkio hurrengoan harriak potroak harrapatzen behintzat!

ZUBIETARREN MARTXA

Bat...bi...bat...bi...

Berotu behar Marathoi erdirako, 21 km. asko dituk eta...

Aurten Behobian izan dugu Zubietako errepresentazio polita. Anttonio, Jexux, Tomas, Jon eta Pello. Hok laisterkalariak! Bat baino bestea hobeak. Ze giroa zegoen! eta kristoren jende pila! Laisterka ibiltzeko gogoa ematen zuen. Goiz laisterkalariekin. Anttonio eta Jexux galdu ditugu baino besteak hemen daude. Nerbioso xamarrak daude baina zer dira 21 km. zubitarrentzat? Ibilaldi bat...Ixo, hasi dira laisterka, goaz ttapa-ttapa! z-z---xu-xu-xu-z-z-z-z-xu-xu-xu. Hau laisterkalari pila, ez daiteke urratsik eman. Pauso arin arina daramagu, eta honela jarraitzen badugu...lehenengoak! Aupa Zubieta! Aupa!

Z-z-z-xu-xu-xu. Egin dizkigu lehenengo...Aupa Pello, emaiok fuerte!...bost kilometroak. Hementxe heldu duk Gaintxurizketako malda: hemen bai lehertuko garela. Pello atzeratzen hasi da, Jakina! Atzo Aurtizen gau-pasa egin zuen eta, to! orain marathoia...fiu-fiu-fiu. Hala ere, goran gaituk! Aupa Tomas! Orain malda behera, aaaze tutea eraman behar dugun Lezoraino. Aupa tomas! Koiño!, Lezon gaituk uste gabean ailegatu gaituk. 9 km. bakarrik falta, portun sartuko gaituk eta hor... Jon, non dago Pello? Gaintxurizketan galdu dugu.

Non nindoan?... Berdin da...15 kilometroan, zer motza egiten ari den. Ixo! Ixo! Oi! OI! Jon atzeratzen ari da; honek ere bart arratsean gau-pasa egin zian...! Hau ez baita manera. Zubitar guztiak banatu dira, eta bakoitzak ahal duen bezala moldatu beharko du!

Helmugan laisterkalariak ez datoz hasieran bezain laister, honerantz indarrak galdu dituzte. Koiño! hemen sartzen da Anttonio. Ordu bat eta 20 minitu, ederki, ederki ez dago gaizki. Hurrengoa Tomas izango da...Hala da ba, hemen dator, hau berriz frexko, fresko, ordu bat eta 30 minutu. Orain datorrena Jon da, ez bazaio zerua gainera erori behintzat...ez ba! ailegatu da! Gizarajoa, Parisetik datorrela laisterka dirudi. Honeri ohatzea ematen baziotek, aste batez ez duk jeikiko ere, urde ustela. Ordu bat eta 35 minutu, ez dago gaizki lehenengo aldia izateko. Nola etorriko ote da Pello? Nahiko nekatua zihurki! Bai, hemen dator ordu bat eta 40 minutu eta azkena. Hauek dituk, hauek! laisterkalariak. Bota munduan hobeagorik baldin bada.

-Irirteko borda-

ZUBIETAKO MOBIDA

Hasi gera, beti bezala, borrokan. Batean tabakoa dela, bestean telefonoa...ttipi-ttapa joango gara.

Zubieta herri txikia bai, baina kulturaren aldekoa «a tope». Neguari begira, elkartu ginen batzuk euskaraz alfabetatzeko asmoz, AEK erakundea dela medio eta hor jarraitzen dugu, leitzar baten menpean.

Ez gara bakarraaakkk!!! Hor agertu zaigu konpetentzia: Jostunen taldea... Haiek traka-traka-traka eta guk nor-nori-nork!

Herri baketsua gurea! Talde bakoitzak bere oztopoak, trabak. Jostunak, aingerutxoak, ari eta ari, josi eta josi,... berriketa batzuk egin,...DRIN-DRIN-DRIN,... NOR DA? Inor ez. DRIN-DRIN...NOR DEN? Inor ez! DRIN.NOR KOIÑO da?!!! Dei anonimoak!!!... TTA-TTA-TTA-TXANNN.

Eskolan berriz. EEEE!!!Kea kentzak, pizarran jartzen duena ikusteko! KOF-KOF. Gaur lainua beheti asko jautsi da!... Erre edo ez erre, thats is the question! Mementuz, gauero eskola eskobatzen dugu, apaina utzi eta Karmelek anbientadorea ekartzen badu, dagoeneko, limoi usaiez bete! Zer gehiago nahi duzue!

Ni zuri joan...natzaizu. Zuek haiek jo... zenitzateke?

BILDOTX PROBETAK

Dirudienez gure baserritarrak «al loro» daude, telebista eta beste aurrerakuntzak direla medio, arlo honetako aurrerakuntza ezaguturik «bildotx probeta» egiten lehenengoak izan nahi izan dute, eta herrian noski.

Baserri batean izugarrizko mirakulua izandu da. Oso larrituak zeuden ardi hobenetaz (denak ere ederrak dituzte), zutik ezin ibiliz zegoelako eta zeozer gertatzen zitzaiola eta ari zirenean, hor non umatzen zaien eta zein poza!, bost bildotx polit izan zuela ikustean. Bai, noski, gainekoak ere: lau, hiru, binaka...

Asko hil direnez gero, garbi ikusten da metodo egokiena ez dela gure baserrietako egoera, arazoak eta abar ikusiz. Bide honetan bildotxak hiltzen baldin badira , hobeki lehen bezala segi edo, aurrerakuntak begiratuz egin, behar bada, hobeki anntisorgailuak aukeratuz gero.

* * *

ELGORRIAGA

LOKAL BATEN BEHARRA

Elgorriako gazteak, bilerak egiteko, elkarrekin egoteko eta sozial-ekintzak egiteko ez daukate toki aproposik. Tartek a herriko-etxea erabiltzen dute hortarako, Udalari 2 edo 3 egun lehenago baimena eskatu behar diote eta baimenik ematen ez badie, ostatura joan behar izaten dute.

Beraz, lokal horren beharra publikoki adierazi nahi dute.

GAZTEEN INDARRA ETA GOGOA

Nafarroako gobernuak ez daukela inongo asmorik Euskal Telebistarik Iurreide honetan zabaltzeko, gazte talde bat lanean aritu da jotake hori lortzeko. Jendea, bere etxeetan Euskal Telebista ikusteko aukera izan duenean , harritua geldidu da. Gogoa eta indarra izatea, batzutan aski baita gauzak lortzen joateko.

ELKARTASUNA

Zein berri kontatu, pentsatzen hasi gara etaburutan hau: azken urte hauetan ez dagoela inongo elkartasunik. Herrian bi talde daude, alde batetik berrogei urtetatik gorakoak eta bestetik hortik beherakoak.

Talde bakoitzak modu desberdinean ikusten ditu gauzak eta jende anitzek talde bat edo bestearen alde dago. Hala ere oraindik badira herrian, herriaren ozerako lan egin ni hi dutenak eta elkartasuna lantzeko beharra ikusten dutenak.

NARBARTE

SAN ANDRESEN JAIA

Azaroaren hogeitamarrean, Narbarteko herriak bere eguna ospatu zuen. Goizeko hamaiketan meza nagusia izan zen herriko agintariek han zirelarik.

Bi urtetik honat aldaketa batzuk sumatu ditugu. Lehen, Haranéko alkatea eta sekretarioa ez ziren inoiz faltatzen meza horretara, baina orain, heurek «ateoak» direlako ez dira agertu ere egin.

Meza ondoren bazkari eder bat eman zen koperatiban; mahaia ez zen nolanahikoa, launa plater alajainea! Jqnari eta edari ausarki. Bazkaltzeko orduan, agintariak eta apaizak elkarrekin mahairatu ziren (hortarako prest e?) Bazkari honetan, agintari gutxi eta apaiz asko zen, Oronotz, Oieregi, Narbarte, Legasa, Donezteb e, Elgorriaga eta Sunbillakoa hain zuzen ere.

Azkenean mus jokaldi batzuk eginez mahaiondoa bukatu zuten.

LEGASA

ABENDUAREN lean, herriko bilera izan genuen eta datorren urteko zer egin erabaki.

Hasteko, lau lan egitea da gure asmoa:

-Karrika eta pareta zaharrak berritzea.

-Edateko ura kondizio onetan eta ur-zikinak garbitzek! depuradorea paratzea.

-Ur-saria konpontzea.

-Etxeetarako argia konpontzea.

Beste aldetik kultur-komisio bat egin dugu. Komisio honen lana, negu alderako zerbait antolatzea izango da. Eta honelako gauza hauetan pentsatzen ari gara: pin-pon mahaiak erostera, ajedrez jokoak edukitzera etabar. Horretaz aparte, bideo bat ere erosi nahi dugu, pelikulak edo erreportaiak botatzeko. Herritar guztientzako izango litzateke.

Legasako Udala.

ITUREN

TXAKUR GAITZA

Horrelako gauzak bai herri honetan, nonbat gertatzekotan hemen izan behar. Txakur bat baino gehiago ba omen da «maskila» deritzen den gaitzak jota.

Gaitz hau harrapatzean, ilea erortzen hasten omen da eta gosea ere joaten.

Ez dakigu kutsakorra den, baina hala bada, berehala Iturengo txakur guztiak soila eta hezur eta azal besterik ez dutela geldituko dira. Herrian erraten denez, gaitza gibelean kokatzen omen da eta arestian erran ditugun ondorioak sortzen.

Eritasun honen kontra, oraindik ez omen dago erremediorik. Beno, hemen ez dago bederen, baina Merkatu Komunean sartzekin...orduan...Orduan ere txakurrak lau hankakoak izango dira ba. Baina, txakur europeoak, hori bai!

Eritasun hau, ez dakigu nondik eta zergatik sortzen den. Galdera honen erantzuna jakin nahi duenak, hurrengo Ttipi-Ttaparako baldu gaia. Albaiteroren batek jakinen baitu eta aski du hortaz arduratu eta herriari jakin erazten badio. Eta ez hori bakarrik, txakur horiekin ibiltzen diren pertsonak ere kutsatzeko arriskuan dauden ala ez adierazi.

Dena dela, aurrez neurriak hartzea ez da sobera izango eta badaezpada ere, txakurrekin ibili ondoren eskuak ongi garbitu eta haurrei ere gauza bera egiten erakutsi.

KONTSULTA BERRITZEA

Azkenean, kontsulta berritzen hasi dira. Bazen ordua! Lan hori egiteko, uztailean iritxi zen diru-laguntza eta uda eta udazkena pasa ondoren, negu gorrian hasi ziren lanean. Uste baino lan handiagoa egin beharrean aurkitu da jendea. Hasi zen hieltseroa lurreko baldosa altxatzen eta...ondar bustia, azpian ez zegoen zemento zentimetro parea ere...Ondoren ormak botatzen eta, biga pare bat ustelduak, etxea eror ez zedin ordezkoak paratu behar izan zituzten. Etxe hau egin zutenean aisa egin zuten nonbait. Orain hor ari dira. Eta ongi egin egin nahiez gero, denbora baterako lanak hartu dituzte.

Bitartean, herriko kontsulta herriko-etxean egiten da. Nonbait leku aproposagorik ez dago herri honetan eta herriko batzarrak egiten diren, ziren, noizbait egingo diren lekuan paratu dute. Hor medikua eta erizaina batera aritu dira kontsulta pasatzen. Orain, beste gela bat, gazteena hau (Inauteritako gauzak gordetzen dituen lekua), prestatu da.

Beraz, batean erizaina eta bestean medikua ari dira.

Eta, kontsultako berrikuntzak...Oraindik, kontsulta berria lekutan zegok!

BASURDE ATZETIK

Iturengo talde bat, gizonezkoak osatutakoa, ia igandero basurde ehizera joaten da. Goizeko bostetan atera eta hor joaten dira expedizio modura, urrutiko herritako mendietara. Orain dela gutxi, bi egunetarako joan ziren beste lurralde batetara, Huesca-ra hain zuzen ere eta gau erdian herrira itzuli ziren, txoro-txoro egin da bi basurde harrapatu zituztela eta.

DONAMARIA

DONAMARIA EZ DA HERRI HANDIA, baina i uzoak sakabanatuak daude, denera bost auzo eta horretaz gain Gazteluk ere herri honetan dauka Udala.

Diputazioak bideak konpontzeko eman zuen diru-laguntza dela eta, Donamariako herriak, heuren aserrea azaldu nahi du Ttipi-Ttapa honen bidez.

Diru-laguntza hori ez baita denendako iritxi. Herri honetako auzo behartsuena, hortxe gelditu baita, lehen bezala, alde guztietan zuloz betea, kuneta zikin zikinekin etabar.

Zer, auzo honek ez al zuen merezi besteak aina?

Beno, zer egingo dugu?

Berriz ere, zain egon beharko dugu konpondu arte eta bitartean, Doneztebeko lantegiei negozio pixka bat emango diegu.

LESAKA

HERRI BILERA. Abenduaren 3an egin zen herri bilera, azken detentzioaren ondotik, Alejandro Ordokiren egoera aztertu eta herriak zer egin behar duen ikusteko. Bileraren hasieran Alejandrori gertatutakoa aipatu zen: nola Frankoren garaian manifestazio batean detenitua izandu zen eta orduan fitxa egin ziotela. Ondotik «amnistia» izandu zen, baina fitxak etziren desagertu (Alejandroren kasuak argi adierazten du). Azken detentzioaren egunean, arratsaldeko 7retan, Kaminero ostatuan, bere onduan egondu zen polizia, gaueko 3 térdietan bertzeekin batera, detenitzera joan zitzaion etxera. «Ley antiterrorista» aplikatu zioten eta zaku bat buruan sartuta eraman zuten. Madriletik libre atera zen, kargorik gabe. Ondotik berri txarra etorri zitzaion: 200.000 pzta. ordaindu behar zituela libre jarraitu nahi bazuen. Ondotik, ez dakit zer kalte ordaintzeko 300.000 pzta. eskatzen d ote, baina sumarioan kaltearen berririk ez dago. Hemen ageri da, dena muntaketa gezurti bat bertzerik ez dela. Bi alditan egin nahi da herri borroka: Lehendabizian Gobernadorekin mintzatuz, ez dutela Alejandro espetxean sartuko, dirua behar badute, herritik bilduta prest dagoela. Ondotik herri borroka, zuzenean egindo da, Herrikoetxe, elkarte eta talde guztien ahaleginekin.

ABENDUAREN 8AN GURE AIREA ETA ERREKA KUTSATU ZIGUTEN. Laminazioko keak direla eta, presioia behera dagoen egun guztietan arnas zikina hartzen badugu, igande haren goizean inoiz baino indartsuagoa zen tximeniak bota zuten kea. Arratsaldean ikusi genituen haurrak, amurrainak eskutan zenbiltzela, erreka garbira eramaten, ekologia lanetan, baina deustarako. Laminaziotik ixurita, hipoklorito pozoia zela medio, erruten hasiak ziren amurrainak, zorruz gora, pilaka ziren. Hurrengo egunean bandoa agertu zen, bertako arrainak ez jateko erraten eta arraintzainak fabrikan agertu ziren. Baina ez da hau lehendabiziko aldia eta zoritxarrez ez dugu uste azkenekoa izango denik, maiz aski gauza bera gertatzen ari delako. Noiz arte Laminazioko kutsadura gurekin?

EKAITZ TALDEAREN AZKEN KONTZERTUA. Azaroaren azken larunbatean, Lesakan izandu zen. Haizegoa zen eta aintzineko hotzen ondotik, ezinlobea besta egiteko. Ekaitzekoek lehertu arte jo zuten eta jendea lehertu arte dantzan, «bertze bat» galdezka; gaupasa zoragaria izandu zen, ahanz ezinakoa. Jaio berria den Bortziri eta Malaerrekako AEKk antolatuta, beren diru beharrak betetzeko; Ekaitzek dohainik jo zuen eta jende anitz etorri zen, diru kontutan ere arrakasta izan zelarik. Argia Eguna eta Euskara Guztiona eta Guztiontzat kanpainak egin ziren baita, pegatinak eta propaganda bazatuz. Euskal Herrian euskarazko egutegiak saldu ziren eta baita soldadutzaren aurka sinadura anitz bildu. Elkarrizketa izan genuen Ekaitzekoekin, batez ere zergatik zen hura azken kontzertua, jakiteko. Aspertu zirela erran ziguten, ia hamairu urte daramatela alde batetik bertzera. Elkarrizketan, bertako musika talde berrientzat aholku eman zieten: euskaraz egiteko, herriari nahi duena eta kalitatea emateko. Azkenean eta beren fans guztietako, agur hauxe, Txelisen ahotik bidali zuten: UDAN EGUNERO IKUSTEN DA ILARGIA,ILARGIA, OSO POLITA, BAI, HERRIKO JAIETAN.

AUPA BETI GAZTE! Beti Gazteren futbol ekipoa erregionalaren lehen mailan doa eta aurtengo gitz ongi gainera, bigarrenak. ZORIONAK ETA AURRERA!!!

SOLDADUTZA. 21 gazte aurten soldadutzarako sorteatu dituzte eta beren adinekoak gehiegi direlako 10 libratu dire.

XAKEJOKO. Azaroaren 24ean, 23 lagun (beratarrak ere batzuk), batera aritu ziren Joakin Altunezekin, Iruñiarra. Aipatzekoa da, haien artean ikastolako 2 haur ere, aritu zirela eta gainera joko polita eginez. Ikastolan, aurretik txapelketa egin zuten eta txapeldunak , batera jokatzeko hautatuak izandu ziren. Xakelarientzat berria dugu, datorren Urtarrilan, Ziobi ostatuan, Xake 2. txapelketa izanen dela.

MENDI KONTUAK. Mendi zaintzaileak proposatutako lan bat baieztatua izan da. Honako hau proposatzen zuen: «Kopa» izeneko mendia Nafarroako Gobernuaren eskuetan uztea, bertan Douglassi izeneko pinu mota landatzeko, hain exkaxak izan baitira azken urte hauetan egin diren landaketak.

Bertzalde Lesakako bizilagun askok

eskabideak egin dituzte, joan zen neguko hormateak edo izozteak hondatu zituen zuhaitzak botatzeko. Batez ere pinadietan kalte handiak eragin zituzten elurteak eta hormateak.

Eta elurteak utzirik goazen lehortea aipatzera, denetatik ekarri baitigu aurtengoak.

Inguruko bertze herrietan bezala, Lesakan mendi eta belardiak gorri kixkali eginak egon dira agortearen eraginez. Eta honek, jakina, ondorio latzenak ekarri ditu baserritarrentzat, batez ere abelazkuntzan. Hau ikusirik Lesakako udalak erabaki hauek hartu ditu:

- Nafarroako Gobernuari eskatzea, hondamenezko zonaldia edo «zona catastrofica» izendatu ditzala, egoera jasan duten zonaldeak.
- Oinarrizko eta kalitatezko pentsua eskatu administrazio zentraletik, aberedunei banatzeko. Honela hornidura zihurtatua egongo litzateke eta aldi berean, ematen ari den espekulazioa gerarazi.
- Izan diren kalteak nolabait arintzeko, diru laguntza bat eskatu «fondo perdido» erara.

AGINDU BERRIA.-

Hemendik aurrera Lesakako mendiko pistak eta beste herriko bideak erabiltzeko, araudi berri onartu du udalak.

Gainbegirada bat emanez, zera dio agindu berri honek: aipatutako bideak eta pistak ongi mantentzeko lanak udaletxeari dagokionez, honek behar beharrezkoa ikusten du, tasa bat jartzea bideak erabiltzeagatik. Tasa hau ordaintzera behartuak izango dira honako hauek:

- Zuraje garraiotan edo zura ateratzen dabiltzanak. Hemen ez dira sartzen nekazal produktoak eta etxeetako egur garrioketak, garrantzi gutxi dutelako.
- Konstrukziorako gaiak edo materialak garraitzen dituenak.
- Pisu handiko makinak, hau da eskabadorak e.a.

125 pzta ordainduko dute metro kubikorako zurakin doazen kamioiak, eta beste hainbeste eraikiterako materialak garraitzen dutenak, eta pisu handiko makinak, baina hauek 125 pzta horiek tonelada bakoitzagatik, hain zuzen.

HERRIKO MENDITAN DABILTZAN AHUNTZEI BURUZ.

Aspalditik debekatuta izan arren, oraindik ere ikusten dira abere hauetatik mendian libre. Hau dela eta Herri Taldeko zinegotziak aurkeztutako idazlana onartu zen, honako puntu hauek zituelarik:

- Errepikatu berriro ere, herri mendietan ahuntzak galaraziak direla.
- Azaroatik aurrera eta hilabetero, udal langileak mendietan ibiliko direla ilegalki dabiltzan ahuntzak harrapatzeko.
- Mendi komunaletan harrapatutako ahuntza guztiak berehala salduko dira.

IRAIN ESKOLAKO OBRAK.

Udalak onartu zuen eskola hau konpondu eta hobetzeko aurkeztu zitzaion presupostua. Berritze lana hauek 7.446.914 pzta. kostako direlarik, eta Nafarroako Gobernua izanen da laguntza batez, lana hauek ordainduko dituena. Obrak egiten ari den Enpresari «Sarobe Hnos, S.L.»ri hain zuzen, bi milioi pezetetako, aurre dirua eman zaio.

HAUR MAILAN KIROLA BULTZATZEKO LAGUNTZAK.

280.000 Pezetatakoak izan dira aipatutako laguntza hauek eta era honetan banaturik:

- Polikirolezko ekintzetako 60.000 pzt a
- Pilota, futbol, txirrindularitza eta judo eskolakoentzat, bakoitzak 40.000 pzta.
- «Mendiaren egunarentzat» 15.000 pzta eta kopuru bera «Txirrindularien egunarentzat»
- Azkenik, materiala erosi ahal izateko 30.000 pzta.

OSASUN ZENTROARI BURUZ.

Badirudi pixkanaka pixkanaka aurrera doala Bostirintzat hain beharrezkoa den osasun zentroaren projektua. Lesakan kokatua egonen da osasun zerbitzu hau. Eraiketa honen lanak 36.126.862 pzta. kostako dira, eta Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu guztiak, 3 miloi eta gehixeago ezik. Diru kopuru hau izanen baita 3.000.000 alegia, zentroaren barne eta kanpoko urbanizazioaren presupostua, eta Nafar Gobernuak ez du hau subentzionatzen.

Hau dela eta jadanik bost herrietako Udalei laguntza eskatu zaizkie, arlo honetan lagundu dezaten, baina dagoeneko Berako Udalak ezezkoa eman du, diotenez Lesakako Udalari dagokio subentzionatua ez den diru zati hori.

BERA



BERTSOLARI ESKOLA.

Udazkenean hasi zen eta larunbatero 2 orduz, Ituren, Zubieta, Lesaka eta Beratik, Gure Txokoan elkartzen dire dozena bat bertsolari ikasle. Irakaslea, Joxe Fermin Arginarena, pazientzi eta ilusioz betea aritzen da. Goxo goxo iragaiten dira orduak eta bertsoz eta irriz haien arteko giro polit bat sortu dute. Kurtsu hau hilabete honen azkenean bukatuko da. E.P.A.ren babesean ematen da.

DROGAREN AURKA.

Eskoletako haurrei abisuak emanez, bilerara deitu eta Lanbide Eskolako zinema aretoan, guraso, gazte, apaiz, mediku eta asistente bildu ziren gure herrietan drogaren eraginak zehaztatzeko. Atzerrian egiten diren droga batzuren sorlekua eta transformazioaren filminak erakutsi ziren. Gurasoentzako bakarrik zela bilera, eta gazteak atera behar izan zuten. Aipatu zen baita, Beran badagoela zerrenda drogazaleen izenekin. Berri honek irazkin anitz sortu ditu gazte jendeetan batez ere, bertze herrietan aipatzen delarik.

LANBIDE ESKOLA GALANTA, BERAKOA.

Aurten lanerako hezkuntzan, FP2 bigarren mailan hasi dire. Dentara 214 ikasle eta 17 irakasle dire. Irakasten diren gaiak: mekanika 2 mailetan, elektrizitatea 2 mailetan, administrazioa berdin eta sanitario bigarren mailan. Elektromekanikan 18 ikasle eta informatikan 23, 2. mailan banatuak daude. Heldu den urterako 2. mailako ikasketak bertan bukatzea nahi dute, hau da 4. eta 5. urteak. Lekuaren beharra daukate eta orain aparkalekua den tokian eta lehengoari itxekiz eskola handitu egin behar da.

GURE TXOKOA ELKARTEAK

aurten ere Eguberritako sariketak antolatu ditu. Haur Ipuinen XIV. Bera Bidasoa Sariketa; Haur Margolarien XII. Ricardo Baroja Sariketa eta XIV. Olentzero Sariketa. Bi lehendabizikoak Bortziriko 16 urte arteko haur- gaztetxoentzat eta azkeneko sariketa Berakoentzat. TTipi TTapa hau kaleratu orduko lanak eramateko epea bukatua izanen da, baina bai posible izanen dugu sarien banaketara joatea, Urtarrilaren 5ean izanen baita Gure Txokoan.

EUSKARA HUTSEAN, SEGAPOTO IRRATIA HASI DA.

Abenduaren 11an «Plazatik» izeneko irrasaioakin jaio zen, berriak, musika, rezetak eta bitxikeriak. Ondotik ikastolako haurrak ordu erdi batez beren irrasaioa egin zuten. Horrengo egunean Patxi Sanjuanek «Euskara Guztiona eta Guztiontzat» kanpainaren barruan euskarari buru mintzatu zen. Oraindik irrasaio ordu guti betetzen dire eta jende gehiago parte hartzea nahi dute irratian ari direnek. Segapoto Irratia entzuteko 103 MHz. FM paratu, asteazkenetan, eguerditik biak laurden guttitara.

HEZIKETA ETA EUSKARA.

Ikastolatik ateri, Oinarrizko Hezkuntz Orokorra bukatuta, euskaraz ikasten jarraitu nahi zuten gazte hauek, istilu gogorrak izan dituzte. Oronotzeko institutoan hasi nahi zuten, baina han euskararik etzen. Orduan Gipuzku aldera jo zuten eta alde batera eta bertzera ibili ondoren, azkenean Irunan hasi dire. Baina heldu den kurtsurako, Bera eta Lesakako ikastoletatik eta Doneztebeko eskoletatik euskaldun gazte talde berriak ateriko dire, eta nora joan?. Gertatzen da 70-73 urteetan haur anitz jaio zela, eta kopurua jeisten joan zen ondorengo urteetan. Horretaz orain Gipuzkoako institutoetan ez dute plazarik ireki nahi, hurrengo urtetan irakasle sobera izango dela aurrez ikusten dutelako.

Nafar Gobernuak dio heldu den kurtsurako Iturramako institutoan BUP eta COU euskaraz egitea posible izanen dela, Altsasun 3 edo 4 gai euskaraz eta Beran, Lanbide Eskolan 2 gai euskaraz.

Dena dela Ikastolen Federazioak itxaropen gutti dauka eta ez ditu sobera sinisten Diputazioaren erranak, urte batez erdaldun irakasleak euskaldun bihurtzeko oso zaila delako eta batez ere goimailako irakaskuntzak emateko.

Eta Oronotzen ezer ez. Eskola hau ez omen da ezta institua bezala onartzen, Iruñako instituto baten menian dago. Hala ere gurasoak aleginak egiten ari dire beren semeek euskaraz jarraitzea posible izan dezaten.

ASKI DA! BARIANTEA BEHAR DUGU.

Zebrabideak jarri gaituzte Bidasoa kalean, baina hala ere berebila edo kamioia heldu baldin bada ez gera pasatzera ausartzen. Eta nola ausartuko gara, igande batean, Agerra auzoko haur bati gertatu zitzaiona jakinta. Zebrabidetik pasatzen hasi etb heldu zen berebil batek arrapatu zuen eta ez hori bakarrik, gelditu gabe alde egin zuen. Ez, zebrabidea ez da soluzioa, trafikoa gero eta handiagoa da eta inork ez du errespetatzen ziztuaren sinalea, gainera arrisko handiko produktuekin kamio anitz pasatzen dire. Bariantea behar dugu lehenbaitlehen!!!



ZERBITZU SOZIALA BORTZIRITAN

Joan den apirila ezgeroztik lanean ari dira, herriko etxeek eta Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarekin. Zerbitzuak dohainik dira eta bertze batzuen artean honako hauek dira beren lanak: Familia talde eta jende guztiari jakinerazi zein diren beren eskubide eta betebeharrak pentsioetan, diru laguntzetan, zaharrentzat etxean laguntza izateko. Berdin bere buruz baliatu ezin direnei eta arazo bereziak dituzten familiei. Behar dute baita harremanetan sartu, gai hauekin zer ikusirik daukaten elkarte guztiekin eta Herriko Etxean dauden zerbitzuekin (sanitatea, kultura eta heziketa). 65 urtetik aintzinera dituztenentzat eta beharrean aurkitzen direnentzat, beren etxeetan posible den arte bizitzen jarraitu dezaten, zerbitzu hauek eskaintzen dituzte. Ezagutzen ez diren kontuak argitzea, osasuna zaitu eta bizkortzea, beren buruaren garbitasuna, etxearen gobernua (arropa garbitu eta plantxatu, mandatuak egin, jatekoa ekartzea e.a.) Eta lagundu eta animatzea. Zerbitzu hauekin harremanetan jarri nahi duzuenak Herriko Etxera deitu eta Etxalarreko telefono honetara :635036.

EUSKARAREN ALDEKO LANETAN, ZENBAT ETA BIDE GEHIAGO HOBE.

Zerrenda honen bidez, bertzerik gabe, gure eritziarekin argi izpi bat gehiago nahi genuke Ikastola eta Euskal Eskola Publikoaren gaiari. Gure helburua: Euskal Eskola Publikoa lortzea. Hau da arront euskaraz egiten dena, non hezkuntza euskara hutsean izango den. Eta publikoa (noski); nure ustez, lehen bezala gaur ere, ikastola irekia dago nahi duen guztiarentzat eta horrela jarraitzea nahi dugu.

Ikastolek ez dute oraindik bere eginkizuna bete eta oraindik dira hizkuntza mantentzeko medioa. Ikastola zaharrak berrientzako exenplua eta indarra dira. Ikastolak elkarturik administrakuntzaren aurrean presio bide bat dira. Nafarroan batez ere, euskararen egoera gaurregun oso larria da. Nafarroako Gobernuak «Ley del Euskera» den horrekin, erreserbatan jartzen gaituen bitartean, Ikastolak borroka bizian ari dira Tuteran, Zangotzan, Iruinean eta urrunego joan gabe Baztanen. Igantzi eta Etxalarren Eskolaurrea bakarrik dute euskaraz, gero haurrek erdaraz jarraitu behar dute; honeri ezin zaio Ikastola deitu. Ikastolan O.H.O. bukatuta, ikasketak euskaraz jarraitzeko ate guztiak itxiak daude. Hauek denak ikusita, nola sinetsi Nafar Gobernuaren Euskararen aldeko borondatea?.

Ez dugu elebitasunean sinesten. Bi hizkuntz indar desberdinetan daudenean, (kalean,irratian, telebistan e.a. erdara da nagusi)batek bertzea itto egiten duelako, gure kasuan erdarau euskara. Garbi dago adibidea, haurrak jostatzen eta haien artean aski da erdaldun bat, denak erdaraz aritzeko; alderantziz baldin bada (denak erdaldunak eta bat euskalduna) ez da euskaraz egiten, ezta pentsatu ere.

Euskararen alde egiten diren lanak, alde batetik edo bestetik, beharrezkoak dira. Ez dute zergatik elkarri oztoporik jarri behar.

Nahi duguna, euskara jartzea erakunde publiko guztietan eta Nafarroa osoan indartzea, Nafarroa euskararen ama denez gero.

Ikastolako guraso batzuk.



EUSKARAREN LEGE AURREPROJEKTUA DELA ETA.

Gobernuaren euskararekiko jarrera ikusi eta, bere lege projektua begiratuta, Nafarroako Erakunde anitz bere baliogabetasuna salatzeko mugitzen hasi dira.

Bortziri eta Maldaerrekan ere, jendeak beren protesta egin nahi izan du. Horrela projektu atera orduko, eskola eta ikastolak eta beste erakunde batzuk, beren aldetik bilerak egin eta irakaskuntza mailan lege honen aurkako jarrerak hartu zuten, baita ere komunikatu batzuk bidali: Diputaziora, Egunkarietara edo E.T.Bra hain zuzen. Gehienean publikatu gabe geldi tu dire.

Ondoren beste maila bateko protesta egin nahiean, erakunde guztiak biltzeko proposamen bat egin zen. Eta horrela bilera bat egin eta, lege honen aurka proposatzen diren ekintza guztiak, ahal den moduan aurrera eramatea eta komunikatu bat elkarrekin egitea erabaki zen.

Hasi zen ba horrela, projektu honen aurkako kanpaina alderdi honetan ere: pankartak legearen aurka eta abenduaren hamabosterako, manifestaldirako deituz, autobusak antolatzen e.a.

Hilabetearen 13an agertzen da egunkarietan, legearen aurka dauden erakundeen zerrenda:

Bera: eskola publikoa, Lanbide eskola, Ikastola, Gure Txokoa Elkartea.

Igantzi: Biltoki elkartea, Ikastola, eta Eskola Publikoa.

Etxalar: Ikastola.

Arantza: Ekaitza Elkartea, Eskola Publikoa.

Lesaka: Eskola Publikoa, Koxkonta irratia, Ikastola.

Maldaerrekako erizainak.

Zubieta, Ituren, Sunbila, Narbarte eta Legasako Eskola publikoak.

Doneztebe: Ezpelura Kultur Taldea eta Eskola Publikoa.

Ttipi-Ttapa, Malaerreka, Bortziriko A.E.K.eta Segapoto Irratia.

Dirudienez, badaude oraindik beste zenbait talde eta erakunde, kanpaina honetan parte hartzeko prest daudenak.

Horrez gain Herri sarreretan «Euskal Herrian zaude, Euskara gure hizkuntza da» jartzen zuten pankartak paratu ziren.

15ean Iruinean, manifestaldia izan zen, eta bertara hemengo jende ugari azaldu zen(autobusa bana bete ziren Beran eta Lesakan). Dena dela, Euskararen lege aurreprojektuaren aurkako kanpaina, aurrera jarraitzen du. Bide horretatik zenbait ekintza prestatzen ari da: Hitzaldiak, bilerak e.a.

ETXALAR

ALKATESAK EKOLOGISTEI SALATU. Hirurogeiren bat ekologista detenitu zituzten joanden igandean Etxalarren. Beraz, Iruñeko ekologista talde hau goizetik etorria zen autobus batean kartutxo azalak biltzera. Ekintza hau ehizaren aurka egiten ari diren kanpaina baten barruan kokatzen dute. Dirudienez, 300 kilo kartutxo azal bildu zuten guztira Usategietako inguruetan. Lan horiek bukatutzat eman zituztenean, eta Iruñea aldera abiatu zirenean, goardia zibilek autobusa geldi erazi zuen eta koartelillora eraman. Jakin denez, Etxalarko alkatesaren aginduz izan zen hori. Honen berri jakin zenean, zurrumurru eta bertsio ugari entzun ziren ostatuetan. Bestaldetik eta iturri onez adierbzi denez, alkatesak Usategietako ostalariarekin hitzegin ondoren, Usategieta inguruak xehatu eta birrindu zituztela leporatzen zien ekologistei. Ondotik jakin dugunez, alkatesaren akusazioak ez dira soil egizkoak. Zenbait postu desmuntatzeak ez du erran nahi Usategieta birrindu zutenik. Kontutan eduki behar bestalde, postu horiek aspaldian desmuntatuak eta gordeak egon behar zutela. Bizpahiru ordu koartelilloan egon ondoren, ekologistak libre utzi zituzten. Horra zer zioten alkatesaz: «Muy buena señora, iremos a su entierro».

ESKOLA BERRIA BAI, KOARTELARIK EZ! Hemen ditugu berriro ere gero eta gogorrago erasotzen. Bai adiskide, hemen gaude berriro ere, pikoletoen bultzada eutsi nahiean. Lehenengo partida irabazi genien baina... bigarren honetan, gauzak ez daude batere argi.

Aldi honetan ez dira txantxetan ibili. «Castizo»ak erraten duten bezala, «mucha mala hostia» eta bai ostia ederra emen ere! Hasteko, eskola berria eta frontoi estalkiduna eraikitzeko pentsatuta zeuden lurretan, koartel berria egin nahi dute. Hortarako, Etxalarko alkatesaren eta bere taldekoen laguntza berezia aurretik badute. Norbaiti entzun nionez, «azken hauek Judasen ikasle aurreratuak omen dira». Nahiago dute koartel berri bat egitea eskola berria baino.

IRAKASKUNTZA EUSKAKALDUNDU. Alferrikako lanaz bezala har daiteke eskolaurrea euskaraz ematea, lehen zikloan segidarik ez bazaio ematen. Horrela gertatzen da Etxalarren. Oraindik ez da lortu lehen zikloa euskaraz ematea. Arazo honi soluzioa emateko, hor dabiltza jo ta ke guraso anitz eta zenbait herritar. Oztopo nagusiena, eskola publikoan dauden bi maisu dira. Hauek ez dute deus jakin nahi euskararekin. Ondorioak haurrak jasatzen dute. Dirudienez, inspektorearen lbguntzari esker, datorren urtean posible liteke lehen zikloa euskaraz ematea. Hortarako bi bide daude: bi maisu horiek euskara ikastea edo bestela hemendik alde egitea.



ARANTZA - IGANTZI

Arantzan, toki gehienetan badago ETB ikustea, baina ez denetan, errepikagailu berria behar da. Baina hara non, orain dagoena kenduko dela jakindu dugu, teknikoari zorrak ordaintzen etzaizkiolako. Honela bada, agudo ez dugu izanen ez zahar eta ez berri, hauxe martxa! Bitartean bazegoen Igantzikoekin konpontzea, baina hemen ere istiluak ugari. Igantziko Herrikoetxeak dioenez, herriko bestetan herri-ostatuan irabaziko diruekin ordaindu beharko zen errepikagailua, dena ordaintzeko ailegatzen ez bazen, berak ondarra ordainduko zuelarik.

DONEZTEBE

EZPELURA KULTUR TALDEA SORTU DA. Haize berriak dabiltza oraingo honetan, euskal kulturari dagokionez. Hiru komisio eratu ziren azken bileraren ondotik. Lehendabizikoak, euskara du ardatzatzat (egoera, birreuskalduntzea e.a.). Bigarrena berriz, aste kulturala prestatzeko osatua dago. Azkenik, hirugarrena Kultur Etxearen obrak zertan dauden jakiteko eta Udaletxearen ekintzak publikoki azaltzeko. Dakizuenez, Kultur Etxe honen lanak geldituak daude une honetan. Bizi «azkarra» desiratzen dugu talde berri honentzat.

INGURUGIROAREN ADITASUNA

Donezteben, «Ingurugiroaren aditasuna»-ri buruzko ikastaro bat izan da, Azaroaren 18tik 23ra, goizeko 9tan hasiz eta arratsaldeko 8etan bukatuz.

Ikastaro hau Nafarroako Komunitate Foralak antolatu du eta gutxi gora behera 30 lagun izan dira parte-hartu zutenak. Bortzerri, Malda-Erreka eta Baztango farmazeutiko, albaitero, mediku, erizain eta beste parte-hartu zutelarik.



Egun horietan, gai hauek aztertu dira: Osasuna ekosistemaren barnean; inguruaren aditasuna; energia; aire, ura eta zorua arrisku faktoreen oinarri bezala; flora; fauna; elikadura; demografia; nekazal ingurua eta hiriko ingurua; etxebizitza eta leku publikoak; eskol-ingurua; sozial lan-giroa; sanitatea arrisku-faktoreen neurketa osoa.

Alde batetik, ikastaro honen bidez bertako sanitarioen erakuntzan eta birziklatzean lagundu nahi izan da. Hain zuzen ere, ingurugiroko aldaketak herritarren osasunean eragin dezakeena ebalua dadin.

Eta bestetik, ingurugiroari buruzko planifikazioa eta sanital-programak aurrera eraman daitezen zenbait eginkizun ezarri.

Ikastaro honek bere alde teoriko eta praktikoa izan zuen, helburu bezala berriz, inguruaren diagnostikoa formulatzea, ondoren programa bat lantzeko.

ZABORRAK BIRZIKLATU. Zaborrei tratamendu egokia emateko LOREA Taldearen zerbitzuak kontratatu ditu Udaletxeak. Talde honek, herritan sortzen diren zaborrak birziklatzeko ikerlanak egiten ditu, (klasifikazioa eta tratamendua). Hemendik aurrera, Maldaerrekako herri guztiak zaborrentzat tratamendu bat izango dute.

Betiko giro xarmanta genuen haurten ere Doneztebeko ferietan.



ARREGI, ALMERIA, ZABALTZA... NOR IZANEN DA HURRENGOA?

Mikel beste hainbat eta hainbat euskaldun bezala, gaueko iluntasunean eraman zuten etxetik, babesgabe zegoenean. Hor hasi zen bere itzulpenik gabeko bidaia.

Inoiz imaginatu ez zituen umilazioak eta inoiz ezagutu ez zituen torturak jasan zituen; garrasi egiten ikasi arte, bere biziko azken garrasiak. Gau ilun hartan, goardia zibilek Zabaltza erahil zuten.

Hauen babesleak berriz, ez dute inoiz aitortuko Zabaltzarekin gertatutakoak, baina herritarrek ez dute horren beharrik. Guretzat argi dago nortzuk diren errudunak. Ez dago bertsio ofizialetan sinesterik.

Hauexek ditugu «ley antiterrorista»ren eta «plan ZEN»en aplikazioaren ondorioak. Argi daukagu baita ere, goardia zibilek ez dutela inolako mehatxurik jasoko Españako Justiziarengandik. Dakizuenez «sospechoso»en aurka eta «democracia» zaintzeko, gertatutako ekintzak aldez aurretik justifikatuak daude. Gaur egun, Españako «demokrazia gazte» honek, ez dezake inolako inbidia izan Hego Ameriketako erregimeni. Hemen beste tokietan bezala, goardia zibilak eta poliziak Herria zigortzeko daude, komunikabideak desinformatzeko eta PSOE, EE, PCE eta antzeko alderdi erreformistak berriz, egoera penagarri hau bultzatzeko.

Mikel, gogoan zaitugu. Herriak ez du barkatuko.

BAZTAN BIDASOA-MALDAERREKAKO EKONOMIA (eta II)

PENTSAKERA ETA MENTALITATEA ALDATZEA: HONA HEMEN HERRIKO ARDURADUNEI EGITEN AHAL ZAION OIHUA. EZ GAITEZEN BERTZEEN ZAI EGON.

Azkeneko TTIPI-TTAPAn gai hontaz hauxe erraten genuen: gauza gehien gehienen azpian ekonomia dagoela, ekonomia da gure gizartearen harat-honatan azpian dagoena. Ez da nik asmatutakoa. Horrexengatik, gure herrietaz kezkatzen eta mugitzen den bat bere herri edo eskualde edo zonalde horren egoera ekonomikotaz batere jakin gabe eta axolarik gabe ezin da egon.

Bigarren kapitulu hontara ekonomilari edo ekonomari ospetsu bat deitu dugu, Fernando Merino, eta berari zuzendu dizkiogu galdera mordo bat. Gizon honen eta ekonomi eremuan egin duen lanaren aurkezpena baino lehen bizpairu ohar:

1.go oharra: Lan hontan «Bidasoa» aipatzen denean, Bortziri, Maldaerreka, Bertiz eta Baztan osoa sartzen dugu. «Bidasoa» deituko diogu zonalde (edo bizpairu zona) honi.

2.oharra: Merinori behin eta berriz gauza bera eskatu diogu: denok errax ulertzeko moduan erantzutea galderei. Noski, ekonomiataz hitzegitea gauza konplexua da, eta sinpleski, linealki eta burki errateak baditu bere arriskuak. Gizon honek egin duen lan hortaz lau ideia garbi eta kezka pittin bat sortzea zen helburua, ordea; eta hortaz, gauzak eskematikoki, labur eta errax azaltzera saiatu gara bion artean, bere arrisku eta guzti. Norbaitek afera hau sakonago aztertu nahiko balu, jo dezala «Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkarian» agertu berria den lanara (Irun, azaroak/84); edo bestela jo dezala zuzenean egileari-rengana, eta honek gustora hartuko du.

Lana eta egilearen azalpen laburra: «El desarrollo economico en la Cuenca del Bidasoa» izeneko lan bikainaren egilea FERNANDO MERINO RODRIGUEZ, 44 urtetako gizon errenteriarra dugu. Ekonomi zientzietan Bilbon lizentziatua, ezkeroztik Parisen ere ikasketak egiten egondua («Matematika Ekonomiari aplikatua», Estadistikako Eskola, Paris). Asturiasen lurralde planifikaziotan lanean jarduna urte batez; Donostiako herriko etxearentzat hiri antolaketan urte pare batez, azkeneko 16 urte hotan Lesakako «Laminaciones» lantegian ari da lanean, eta Hondarribian bizi da bolada hontan. «EL DESARROLLO ECONOMICO EN LA CUENCA DEL BIDASOA» lan hau bere tesi doktorala izan zen, Bilboko Unibertsitatean aurkeztu eta defendatu zuen, eta epaimahaiak «sobresaliente cumlaudum» eman zion (ezarri leiken notarik bikainena). Hortik atera kontuak.

Elkarrizketa:

TT.TT.- Fernando, lurgintza edo nekazaritzatik industrigintzara pasa da Bidasoaldea. Zer erran nahi du horrek ekonomista batentzat ?.

F.- Hori izugarrizko aldaketa da; iraultza ekonomiko, soziologiko eta psikologikoa suposatzen du. Hain zaila da aldaketa horren berri osoa laburki ematea !!. Gauza hau da: famili bat bere buruaren jabe izatetik (Autornikuntza) merkatuaren menpera pasatzea. Horrek zeharo aldarazten du gizona (ez naiz sartzen onerako edo txarrerako izan den).

TT.TT.-Ekonomikoki, bat batean eman ote da aldaketa hau, ala bazetorren?

F.-Industria aurretik bazetorren. Nik nere lan hontan hiru garai nabarmen asaltzen ditut:
1900-1925ra: garai hontan baserriak bertan eta beretzat egiten du lana nahikotasun nekazari ekonomia.
1925-1955: egiten dena bertan kontsumitzeko eta zati bat ere saltzeko (esnea). Merkatu ekonomi baterako sarrera; mentalitate aldaketak; Lan zati bat diruaren truke.
1955 gaurdaino: ekonomi eta gizarte berri bat finkatzen da.

TT.TT.-Gaur zeretik bizi da Bidasoaldeko familia?

F.-Zonalde guztia harturik eta datutan:
Diru sarrerak familitan,
53 Industrigintzako soldatatik.
25 Baserri lanatik
22 gainekoa (serbitzuak, komertzioak...).
Eta gainera, begira: industrigintza aberastasunaren 76 kampotik etorritako iturria, eta bakarrik 24 bertakoa. Pentsa zenbaterainoko menpekotasun edo dependentzia daukan zonaldeak.



TT.TT.-Zure ustetan, zer moduz bizi da ekonomikoki hemengo familia?

F.-Ekonomikoki ongi, edo behintzat hirietan baino hobeto. Eta noski, hori baserriri zor dio (badakigu, porruak eta azak...dena erosi behar ez izateak hainbat familitan, baserri eta baratzari esker...horrek aunitz hobetzen du ekonomikoki).

TT.TT.-Gauzak zein bide hartuko dute ? Zer uste duzu, hobeto edo okerrago bizitzera goazela?

F.-Nik uste makurrago bizitzera goazela; hemengo baserriak dauden bezala porrot egitera doaz...adibidez, Europan ekonomikoki sartzearekin, esnea egiteak ez du arrazoirik edukiko (Europan esnea sobran baidute,eta handik merkeago etorriko zaigu); Kanpora esportatzen duten industriek larri ibiliko dira orain arteko esportazio laguntzak mozterakoan; siderurgiak ostiko kozkor bat har lezake...bai, nik uste okerrago bizitzera goazela...baldin eta antolaketa aldatzen ez badugu. Badira, alegia, Europak behar dituen gauza franko hemendik saltzen ahal dizkiogunak...!!.

NIK USTE OKERRAGO BIZITZERA GOAZELA, BALDIN ETA EZ BAGARA ANTOLATZEN ETA EUROPAN ZER EGIN DEZAKEGUN JAKIN ETA JOKATU.

TT.TT.- Bai, hortaz, zera: baserriak badu etorkizunik? (denak egiten dugun galdera aspaldidanik). Merezi du baserriari eusteak?

F.-Bai, jauna, baserriak badu etorkizuna, baina hortarako mentalitatea aldatu egin behar du. Jaun-Andreok, pentsa Irundik Hernaniraino ze jende pila bizi den Malagako tomateak jaten, guretzako pauso bat bidean izaki eta hemengo fruta edo barazki ale bat ere ez dugu hor sartzen... Bidasoaldeko lurra oso ona da, oso emankorra, naiz zaila izan mekanizatzeko. Jakin egin behar

HERRI BAKOITZAK, ZENBAT HERRITAR?

(Biztanleen kopurua, emandako urteetan)

URTEA	1860	1877	1887	1897	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1975	1981
Arantza	1.172	997	1.029	1.048	1.088	1.072	1.105	1.050	1.132	1.186	1.046	801	743	723
Etxalar	1.720	1.507	1.494	1.413	1.397	1.347	1.368	1.365	1.338	1.344	1.109	896	849	835
Igantzi	706	534	561	605	590	723	704	645	612	729	618	658	626	607
Lesaka	2.328	2.259	2.152	2.351	2.304	2.289	2.346	2.347	3.445	2.169	2.294	2.689	2.954	2.943
Bera	1.966	2.052	2.352	2.637	2.710	2.504	2.599	2.549	2.505	2.803	2.600	2.711	3.205	3.454
BORTZERRI	7.892	7.349	7.588	8.054	8.089	7.935	8.122	7.956	9.032	8.231	7.667	7.755	8.377	8.562
Sunbilla	1.160	1.124	987	1.026	1.034	1.037	1.065	1.047	968	1.020	951	795	711	657
Doneztebe	652	760	670	700	646	726	843	875	786	958	785	892	1.024	1.061
Elgorriaga	264	211	207	232	209	191	195	177	186	173	190	204	207	179
Ituren	692	595	648	643	638	589	614	539	530	533	471	434	451	444
Zubieta	604	590	550	511	527	531	606	585	565	576	500	401	373	324
Erasun	576	489	478	406	423	434	425	464	420	407	436	320	263	215
Ezkurra	641	504	472	456	443	487	496	485	522	518	475	352	300	282
Donamari	733	615	621	646	623	637	644	646	612	617	567	433	382	334
Oitz	190	208	152	150	174	176	165	210	218	210	204	178	168	157
Labaien	808	694	728	694	669	619	674	647	599	576	537	411	374	281
Saldias	431	373	362	371	366	334	320	293	278	270	271	232	189	155
rrotz	418	335	341	339	335	293	328	322	338	342	318	240	230	198
MALDAERREKA	7.169	6.498	6.216	6.174	6.087	6.054	6.375	6.290	6.022	6.200	5.705	4.892	4.672	4.287
Bertizarana (1)	1.056	935	824	876	869	817	858	790	754	730	651	557	540	585
Baztan (2)	10.260	10.494	9.158	9.627	9.782	9.643	10.179	10.182	10.816	10.127	9.312	8.689	8.545	7.983
BISASOA	26.377	25.276	23.786	24.731	24.827	24.449	25.534	25.218	26.624	25.288	23.335	21.893	22.134	21.417

(1).-Bertizarana: Legasa, Oieregi eta Mugaire sartuta.
(2).-Baztan: 15 herriak edo lekuak batean hartuta.

Iturria: «Censos y Padrones de Poblacion I.N.E.»; Ttipi-Ttapak Merinoren lanetik jasotakoa, baimenez.

da zerk merezi duen egiteak eta zer utzi, noiz, nola eta norako. Ikertu egin behar da, inbertitu azterketetan, antolaketan, orain gordetzen jakin eta gordelekuak eduki bihar saltzeko...
Begira, adibide bezala: Europak aretze haragia behar du, eskasia de eta hemen haragitako txahal eta zekorrak izan lezakeen berea, baina ez ordea bat banaka! Edo ardiak, artaldiak: ardi haragia eskatzen ari dira Europan, behar duenatik 30.a besterik ez dauka. Noski, baldintza batzu esijitzen dituzte haragi hau sartzen uzteko: kanalean 15,7 kilo eduki behar ditu, eta hemengo ardiak orain batezbeste 12 kilora iristen da gaur. Hortxe zegok ba koxka !. Ikusi, ikasi eta jokatzen jakin.

BAI JAUNA, BASERRIAK BADU ETORKIZUNA, BAINA EZ ORAINGO TANKERAN. EUROPA TXAHAL, ZEKOR ETA ARDI HARAGIAREN PREMIAN DAGO, ETA GUK EMAN DIEZAIOKEGU.

TT.TT.-Eta industrigintzan, zenbateraino pisua du Laminacionesek?

F.-Haundia. Endaltsatik Urdazubiraino, «Laminaciones» da aberastasun iturria erdia baino gehiago... Behar bada, ez gara erne ibili eta arraultza gehienak saski berean ezarri ditugu.

HERRIEN ARTEKO «BIDASOA ARROAKO BALIABIDEEN KOMUNITATE ARTEKARIA» SORTU BEHARKO LITZATEKE.

TT.TT.-Langabezia, paroa, zertan dago? Haunditu egingo da hemen ?.

F.-Datu batzuk badauzkat nik, baino nahiko zaharrak gelditu dira gaur.
Lanik gabe daudenak, eta lanera kampora doazenak. Pentsa zenbat EMAKUME joan diren eta oraindik doazen kanpora lanera. Oraindik emakume emigrazio garrantzitsua ematen ari da hemen. Eta horren ondorioak?. Bertara gutxiago ezkondu, haur gutxiago, batez ere populazioa zaharragoa... Oso interesgarria eta garratza da Bidasoak ematen duen emigrazioa emakumeetan. Gaia hontaz interesa berexirik duenak etor dadila niregana.

LAMINACIONES DA ABERASTASUN ITURRIEN ERDIA BAINO GEHIAGO. ARRAULTZA GEHIENAK SASKI BATEAN EZARRI DITUGU.

TT.TT.-Luzeegi gerta ez dedin, Fernando, azkena. Pentsa ezazu zure eskutan dauzkazula ekonomi proiektu bat egin eta bideratzeko ahalmen guztiak datozen 20 edo 30 urtetarako. Nondik hasi eta joango zinake?

F.-Uf, liburu oso bat merezi du honek. Begira, letaniak bezala botako dizkizut, ordenarik gabe:
-Zertan gauden ikusi (nere tesia hortaz dijoa
-Zein egoeratan gauden herriko arduradunak kontu arazi, behingoz
-Zer behar du gaur merkatuak, ikertu.
-Zer eskeintzen ahal diogun guk (abelgintzan edo ganaderian, barazkiak, turismo arloan...)
-Memtalitatea aldarazi jendeari.
-Herrien arteko «Comunidad gestora de los recursos de la cuenca del Bidasoa» sortu; behar beharrezkoa.
Begira: 67 lur komunalak dira (Baztanen 80). Eta lur horri ez zaio behar hainbat probetxu ateratzen, ezta inolaere. Konturatzen gara, ongi aprobetxatuta, zer nolako fondoa sor dezakegun hortatik, hain zuzen nahi eta behar duguna bertan, bertarako eta bertatik potentziatzeko?
Eta horrela pentsatzen dugu Europan sartzea. Ez dut gauza oso beltza jarri nahi, baina, Jaun-Andreok, ez gaitezen Espiritu Santuaren zai egon.

Horrelaxe mintzo zaigu Merino. Hainbat eta hainbat puntu interesgarri eman dizkit, ez nagola batere seguru laburtu eta ongi euskaratu dudanik berak esandakoa. Puntu asko geratu zaizkigu mahai gainean. Gai honek badu mamia, baldin ez banago gorra !!.

ANTTON

ADIZU, EUROPEARRAK GARELA !!!

Sartu gaituzte, haiek gu, entzun handiko azoka hortan, Europako Merkatuan, eta hementxe gaude, ongi jaioak gehienak, ondorioren espero.

Zalantzen denborak joanak dira eta eginkizunenak ailegatu, NONDIK? NORA? NOLA?

Aspaldiko bildurra nuen nik eta, horregatik lehenengo egun batean, kasualitatez enteratu nintzela, horra nora jo nien: Oronotzeko Mikel Donearen eskolara.

Platera hautsi ipurdiko minez egon gabe, -pentsatu nuen nere baitan- hobe dut enteratu, arrazoiekin kexatzeko!

Eta ez nintzen bakarra izan. Hango eta hemengo jende mordoxka bildu ginen, jendairara ailegatu gabe, hizlarien entzule prestuak.

Ez dizuet den dena esango, hain interesatuak bazaudete joatea besterik ez zenuten eta. Pentsa ezazute, besterik ez bada, hiru ordu inguru pasatu genituela han, ke tartean, goseak mugi eragin arte.

Zer atera nuen garbi? Ba, erresumen labur bat egiteagatik, hauxe, gutxi gora behera:

Lehendabizi. Leporaino sartuak garela. Inork ez zuen hau dudan jarri. Batzuk ontzat hartzen zuten, tekniko begirada luzekoak; gehienak, entzuleak, bertsolariak eta neronek, urrutikotasunean galduak. Lehen Madrid gertu ez bagenu, Bruselas zer esanik ez! Hara hemen bertso tartean esaten zena:

Merkadu komunean sartu baino lehen, hasi behar dugu galdezka...Marimandonak Bruselas hortan dira, noiz guk geure jabeak? PLAS, PLAS, PLAS, PLAS...

Bigarrena. Sartuak geranez, nola jokatu?

Dirudienez, eta hemendik aurrera, mendiko nekazariak izango gara, mendiko nekazaritza egiten dugun ezkero. Ez tonto aurpegia jarri! Zu eta ni, ni eta zu, horrelakotan gaude, nahiz eta ez jakin. Goi xamar bizi gara -batzuk besteek baino gehiago- eta gure kosetxak ahal den denbora gutxiena pasa behar dute landan; lur gutxi dugu -nik, zuk baino gutxiago- eta lana egiteko zaila. Zalantzarik gabe mendiko nekazaritzan gabiltza.

Eta?

Ba, laborantzan senide txikienetarikoak garela, txiki eta pobreenak.

Teoriz behartsuenak garenez, gehiago emango digute,...Ez ba!!

Merkatu famatu horren agintariek, marimandonek, apartako ohitura bitxia dute: zenbat produzitu, hainbat lagundu.

Berrogei ardi, lau behi eta etxeko behar hainbeste artorik ez du pena merezi, eta hor konpon Marianton! Horrela segitzekotan, bide ahul hortan, gehien lortuko omen duguna, zera izango da, agroturismo aldeko ogi apurrak. Etxea konpontzeko laguntzak, eta ez zerutik eroriak, turistarentzat irikiko dugula baldintzarekin baizik. Euskal Gobernua -Jaurlaritza diote beurek- ba dira urte batzuk bide hortatik abiatu zela, arreta txikikin, nere ustez.

Eta hori ez bada? Kiwi fruta berria, hemengo eguraldientzat espeziala, ongi izan behar dena,... edo plastikoak. Jo eta ke plastikoz bete gure inguru guzia eta, egia esateko, nere ustez ez oso komenigarria. Europa mailan plastikozko nekazaritza askoz ere landuagoa dagoelako, aurreratuagoa eta beste aldetik, plastikozko janaria sortzen duelako.



Zuk ez dakit, nik bai, nahiago dut gutxiago eta hobeago jan, ez asko eta txarra. Eta ez dut uste bakarra naizenik, Gipuzkoako merkatuan, Bizkaiakoan, Iruñekoan eta urrutiago ere europarrak, ia bada urte batzu aspertuak daudela eta janari on baten bila dabiltza. Eta oraindik gutxi badira, ugaritzen jarraituko dute. Kalitateko produkzioa izan dezakegu bide egokia. Gure lurrak ez dira oraindik galdu. Ongarria, simaurra, gorotza eta beste izen askoren kaka erabiltzen dugu. Ez dugu dena kimiko abonuz erre,...bide baten hasiera...

Haziendak ere, kalitatekoak omen ditugu eta haragi eta gaztaren aldetik, bere emankizuna ona omen da. Baina, hori bai, hortik zehar saltzekotan, kalitateko garantia. Oinarrizko izena, beharrezkoa dela aipatzen zen Oronozen.

Baina, azken funtsean, bide bat bakarra ikuitzen zen: elkartaduna, kooperatibak,...nekazaritzatik bizi nahi badugu...

Banaka eskatzea alperrikako lana izanen delako, eta banaka segi ezkero «Diputapenaren» eskuetan geratuko gara. Gero, horrela jokatuz, ez du balio betikoa egitea, besteeganako erruak botatzea.

Eskatu behar, eta gogor hizlari batek ziona: «Hay que exigir que a la montaña vaya tanto dinero como a los demas sitios». Baina mendikoak ez badira beuren buruz arduratzen, nola eskatu?

San Migueleko paretan hauxe zegoen ezarrita:

EHNEkoek (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) hitzegiten zutenean ere, gauza bera.

Ez dugu, inolaz ere, konpetentzirako posibilitaterik. Bide bakarra bertako produktoak kalitate aldetik azpimarratzea, azaltzea dugu, eta, horretarako, sanidade eta kalitate aldetik ondo jokatuz, sorlekuko izena lortu beharra; gure eskuetan gorde behar salerosketarako bidea - kooperatiba - eta beste hainbeste arazo. Gaurregun, esaten zen ere, hemen egiten da lan zailena eta garestiena: aretxiak edo txerrikumeak sortu, besteek, gizenduz irabazi gehiena eramateko....

Bueno, gure eskuetan dago alkartzea, bizilaguna etsaitzat ez hartzea,...

Pentsatu ongi eta zerorrek ikusi!!!!

JUAINAS

DROGA «HEMEN BIZI DA»

Droga arazoa planteiatu eta aztertzeko (gure posibilitateen neurrian) garrantzitsua da ongi kokatzea gaia ulertu ahal izateko.

1. Historia apur bat. Bibliak dioenez Noek beteka ederra harrapatu zuen ardoa omen zen likidoa irentsiz. Horrela miragarria bezain arriskugarria izan daitekeen gauza aurkitu zuen, pixkanaka hartuta gorputz eta izpirituarentzat ondorio osasuntsuak sortzen bait ditu, baina soberan bada eragozpenak eta heriotza ere.

Japoniarrek arroza destilatuz Sakea sortzen dute, alemandarrek garagardoa, Eskoziarrek wiskia. Guzti hauek mendebaldeko zibilizazioak onartu eta bultzatutako drogak.

2. Legaltasuna? Droga hitza honela definitu ahal dugu: gorputzean borondatez sartu egiten den gai kimikoa, gizabanakoaren baldintza psikikoak aldatzeko asmoz, berarengan menpekotasun egoera sortuz (eguneroko bizitzagatik sortutako zailtasun psikologikoak gainditzeko berara jotzeko beharra sentitzea). Dena dela, droga batzuk instituzionalizatuta daude, hau da, legalak dira, alkohola edo tabakoa bezala, beste batzuk ilegalak dira, marihuana, heroina etabar. Garbi gelditu da mota ezberdinetako drogen kontrol eta hedakuntza interes ekonomiko eta politikoekin lotuta dagoela, ondorioak ahazten dituztelarik.

Haien erabilpenaz hainbat adibide eman dezakegu: koka indioen lanerako jasapen eta errendimendua gehitzeko erabili zen. 1.936ko Espainiako gerran soldaduei koñaka ematen zieten gudura joan aurretik.

Gaur egun Euskal Herrian toxikomano asko dago. Kalitate onenezko heroinaren bitartez desegindako eta burrukarako gogorik gabeko gazteria sortzen saiatzen da botere aldetik.

3. Sailkapena:

-Leunak: ohitura sor dezakete eta menpekotasun psikikoa erakartzen dute, hemen toxiko hauek daude: tabakoa, aluzinagarriak (kanabisaren eratorkinak, LSD...) eta lasaigarriak (anfetaminak...)

-Gogorrak: menpekotasun fisikoa eta psikikoa sortzen dute, honako toxikoak dira: heroina, opiazeoak, barbiturikoak eta alkohola

4. Drogaren funtzio sozio-politikoa: droga, hala legala nola ilegala, interes zapaltzaile eta internazionalen arauera zuzentzen eta erabiltzen da. Haien helburua sektore ezberdinetan (batez ere gazteak) sartzea da, sektore hauek egiten dutenarekin pozik ez daudelarik, edo ez dute deus egitekorik, edo besterik gabe ez diegu irakatsi.

Ukituak suntsitu egiten dira, «merkantzia» oso garestia da (heroina gramoa 25.000 pzta. inguru dago). Honek trafikatzera edo lapurtzera behartzen ditu, non edo nori bost axola zaielarik, heltzen den une batean drogaren beharra denen gainetik bait dago.

Hau, pertsonak izaten dituen arrisku larriak kontutan hartu gabe, kontsumoak pertsonari gi-

sa ezabatze osoa suposatzen bait dio eta epe labur edo erdira heriotza erakarri ahal dion egoera fisikoa, heroina nola alkoholaren kasuan.

Arazo honetan garrantzizkoa da droga leun eta gogorren arteko berizketa. Honetan eragin handia dauka legalak izan ala ez izateak.

«Porroak» erretzen dituenari ezin zaio esan drogadiktoa denik, nahiz eta drogaz hitz egiterakoan beti porroa, heroina, koka etabar aipatu, alkohola, tabakoa eta kafea ahaztuz, esate baterako.

Egia da ere bazkarietan ardoa edaten dugun guztiak ez garela alkoholikoak. Dena dela, erraza da alkoholikoa ardoa edatetik abiatua izatea eta heroinomanoa «porroak» erretzetik.

5. Ohitura sozialen tranpa: alkohola eta tabakoa.

a) Alkohola. Baskongadetako gobernuaren datuen arauera Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian 60.000 miloi pezeta gastatzen da urtero alkoholezko edarietan. Hemen, Nafarroan ez gara urruti ibiliko. Gure «nortasun» nazionalaren datu bitxi moduan, espainol estatuko alkohol kontsumo estatistika guztietan lau euskal herrialdeak agertzen dira lehen tokian nabarmenki.

Alkoholak lantegitako burruka sozialengatik sortzen den baino askoz lan absentismo handiagoa sortzen du.

«Direccion General de Sanidad» delakoak dioenez espainol estatuan 8.800 pertsona hiltzen da urtero alkoholaren ondorioengatik.

Epe erdirako prebisioetan zera ikusten da, alkohola hirugarren heriotz kausa izango dela, minbizia eta eritasun kardiobaskularren ondoren.

Zerrenda segi dezaket, baina aski dela uste dut...

b) Tabakoa. Droga legal hedatuenetako bat da. Ameriketatik dator, han Ipar eta Hegoaldeko tribuek helburu erlijiosoetarako erabiltzen zuten.

Europara XVI. mendean heldu zen eta azkar hedatu zen maila sozial guztietan.

Zenbait garaitan debekatuta egon zen, 1.621 urtearen inguruan, aita saindu batek debekatu zuen, Urbano VIII, exkomunio zigorrez.

Ordudanik kontsumoa gehitu egin da.

Tabakoaren faktore eragingarria nikotina da, izen hau frantsesa zen Jean Nicotengatik dator.

Ondorio eragingarri eta analgesikoetaz gain, baditu besteak, epe luzerako kaltegarriak direnak.

Hasieran menpekotasun fisiko eta psikiko handia sortzen du. Era berean hausnarketa eta zirkulazio sisteman aldaketak sortzen ditu, baita ultzera gastrikoak eta arazo psikikoak ere.

Erlatiboki nahiko arriskugarria den droga izan arren gizarteak mito bihurtu du.

Publizitateak, telebistan, zineman, literaturan, egunero bonbardeatzen gaitu tabakoaren kontsumoaz izugarrizko arrakasta eskeiniz bizitzarako.

Droga honen inguruan eraikitako industria horren garrantzizkoa denez, hainbat estatutan, Espanian bezala, haren esplotazioa estatuak berak monopolizatzen du.

J.Etxebeltzea

MENDAUR

Inguruko herri batzutatik ikusten da, egun argietan begiratzea gustatzen zait, bere baseliza ederki ikusten da, mendi tontorrean, txuri-txuria.

Natura aldetik, badauka estetika edertasun guztia: Florari buruz ugaritsua da; Aritzak, pinuak, pagoak, gaztainondoak, baita loreak ere. Faunari buruz noizbait basurdeak, basahuntzak edo zaldibasak ikusten dira; untxiak, erbiak eta sugeak ere bai, artzaiak mendian uzten dituzten ardiak ikusten dira, beti atsegina da mendialdean dagoen bakartasun eta ixiltasunaren artean. Ibaiei buruz ere esanen nuke mendiko ixiltasuna hausten dutela, baina bertan jaiotzen diren errekak batez ere, garbitasun berezia dute

Garai honetan mendizalez, ehiztariz eta onddo biltzailez betea dago, gehien aste bukaeratan eta, dena zikindu edo zapaltzen dute, mendiaren baldintzak errespetatu gabe.

Badago egun bat hautatua, Trinitate eguna Mendaurrera erromerian jo ateko, normalki lagun taldeak oinez igotzen dira, eta bakoitzak bere bokadilloa edo bertan su eder bat egin uta, han erretzeko zerdait eramaten dute; nahiz eta iturri ederrak izan, zahato frango ikusten da. Ohitura hau galtzen hasi da komodidadez edo, aisago dela eta, autoz igotzen dira. Ohitura zaharrak galtzea ez zait batere ongi iruditzen, eta gainera poluzio bide bat da. Mendiaren garbitasunari eutsi egin behar zaio

Mendi tontorreko ermitan meza izaten da, batez ere adintsuenak joaten dira. Dirudienez mezarik entzun gabe, Trinitate eguneko bestarik ez dago. Handik atera ondoren, enbalsean edo presa bazterrean lasai-lasai bazkaria egiten da; eguraldia ederra baldin badago, lohi haundia egon arren, norbait bainatzera ausartzen da. Arratsaldean, batzuek kristoren dantzaldi eta kantaldiak egiten dituzte, polita, batez ere adineko norbait sartzen bada. Umeak ere jostatzen dira korrika zalapartan, zelai ederrak bait dira, beste batzuk etzanda siesta edo kuluxka ederra botzatzen dute, gainekoak kartetan edo beste joko batzuetan. Gutxi gori behera honela igarotzen dute ilunabarreraino eta poliki-poliki, denak Iturenera. Han pote batzuk artu eta dantzari segi, eguna ongi bukatzeko.

ZUBIETAKO AEK

MALDA-ERREKAKO OSASUN-ZENTRUA

Komunitate baten Osasun-maila, bere behar material eta esperitualen betetasun-mailarekin erlazionatua dago, hitz batez, bere bizimoduaren kalitatearekin.

Gaur egun gure herrian heriotza eragiten duten arrazoiak zehazki aztertzen baditugu(minbizia, istripuak, eritasun kardiobaskularrak eta birika-bronkioetakoak...) eta errazagotzen dituen baldintzak (lanaren giroa, trafikoa, elikadura-usadioak, bizimodu tankera...), OSASUNA GURE BIZIMODUAREN MENPEAN DAGOELA berehala ziurtatuko dugu, eta berez, bizimodua hobetzearen beharraz arduratuko gara.

Orain artean anbulategietan egiten zen lana gaitzak sendatzeko zen, ia parterik handienean.

Osasun-zentrua sortu ezkeroztik, gaitzak sendatzeaz gain, hauxe nahi dugu egin:

1.-Gaitzak prebenitzea eta usadio osasuntsuagoak eragitea.

Bitarteko hauekin:

-Herriaren osasun-arazoak ezagutu (sozialak, lanarekikoak, girokoak,...) eta haiengain jokatzea.

-Osasun-heziketa (mintzaldiak, informazioak, kartelak).

2.-Asistentzia hobetzea.

-Eri bakoitzari emandako denbora gehitzen saiatuz.

-Zain egotearen denbora urritzen saiatuz.

-Diagnostikoa egiteko bitartekoak hobetuz (E.K.G., analisiak...)

-Hipertentsio-kontsultak.

-Atso-agure edo elbarritutako erientzat etxez-etxe egindako bisitak.

Helburu hauek lortzeko, alegia anbulategia osasun-zentrua bilakatzeko, denbora behar dugu, lan egitea eta BIZTANLEGO OSOAK HERRIAREN OSASUN-ARAZOETAN PARTE HARTZEA.

«Laukaian bizia plasmatu nahi dut»

ESTER FERNANDEZ, MARRAZKILARIA

Ttipi-Ttapako orrialdetan, behin baino gehiagotan azaldu zaizkigu marrazkilariak, inguru hauetako marrazkilariak; heuren lanaren bidez Ttipi-Ttapa apaindu baino gehiago jantzi, sendotu egin dutela iruditu zaigu. Ttipi-Ttapa bat marrazkilaririk gabe imaginatzen al duzue?

Marrazkiak... Marrazkilariak... Koloreak... Lapitzak... Pintzelak.

Zer mundu da hori?

Eta oraingoak, Ttipi-Ttapa honetako azala Ester Fernandezek egin dunez gero, berarekin mintzatzera joan gara. Eta iritsi geranean, lauki baten aintzinean zegoen gure irudirako. Behar bada, laukiaren barnean zegoen, farola baten aurrean baino gehiago azpian, edo...

«... zein egun kaxkarra daramaten, begira! lagun hau, Mariano da eta oraintxe ari dira Iruñean bere erakusketa egiten, ba hil zorian dago. Leuzemia du.»

Bat batean, horrela gauzak entzutean ez daki batek zer egin, korrika hasi edo, laukian barruan sartu eta kitto!

Baina, ez bata eta ez bestea...Irripartxo bat eta...zer nolako elkarrizketa aterako ote zaigu? Saiatuko al gara?



Magali Lara

T.T.-Ester, noiztik ari zara marrazkiak egiten?

E.-Hasi nintzen, horrela ni gogoratzen naizela, hamabi urtekin, jolasten, nere kontura. Etxekoak berriz, pentsatzen zuten ergelkeriak zirela, ume kontuak.

T.T.-Eta nork lagundu dizu mundu horretan sartzen?

E.-Ni neu joan naiz egiten, ahal nuen guztietan margotu besterik ez bait nuen egiten. 14 urtetan eskolatik atera eta lanean hasi nintzen bulego batean. Arratsaldetan berriz, gurasoak, aita hain zuzen ere, josten ikastera joateko apuntatu ninduen. Eta, hori ez zitzaidan gustatzen, zenbat borroka! neri ez zitzaidala gustatzen eta ez nintzela joango eta etxekoak berriz alferra nintzela eta horrela. Nik nere teman jarraitzen nuen, marrazkiak egin nahi nituela, hortan ikasi nahi nuela eta etxekoak aintzakotzat ere ez ninduten hartzen. Noizbait «Artes y oficios»en izena eman nuen, eta nere kontura aurreztuz, matrikula ordaindu nuen eta 16 urtekin sartu nintzen. Behin sartuz gero, hango giroak txundituta utzi ninduen. Orduan arteko eskolakin ez zuen zer ikustekorik, eskolako eta etxeko giroa orduan arte tradizional izan bait zen. Eta bat batean sartzen zara leku batean eta egun guztian gauzak asmatzen, margotzen eta eskukin zerbait egiten, gauza ederrak neretzat. Txoratua sentitzen nintzen. Nik nahi nuena egiteko aukera bait nuen eta horretaz gain, ikasten ari nintzelako egunetik egunera gauzak hobeki ateratzen ari zitzaizkidan. Mundu horretan, jende berria ezagutzen hasi nintzen, jende arrunt interesgarria. Bestalde, izugarrizko erreztasuna nuen jendea miresteko, lehen aipatu dizudan Mariano hori ere han zegoen eta anitz animatzen zuen taldea, bera eta beste hiru lagun ari ziren ia bukatzen, neretzako idoloak bezala ziren eta heurengatik ni ere animatu egin nintzen, heuren marrazkiak eta biziera ikusita. Eskola hortan bi urte egin nituen.

T.T.- Zure burutaz esan al dezakezu marrazkilaria zarela?

E.-Bai, dudarik ere ez. Neretzat pintura, bizitzeko era bat da.

Bizia bizitzeko era, eta ez bejetatzeko zerbait. Bizitzeko, zerbait behar da, afizio bat, lana edo; eta neretzat pintura da hori. Eta pinturaren bidez sartzen zara leku guztietan, ez da fazeta bat; pentsa, lauki baten aurrean, aldiro zure bizia planteatu behar duzu. Esate baterako astean lauki bat egiten baduzu, ba astero zure bizia planteatzen duzu, horrela da. Hor azaltzen dira zure iritziak, zure pentsamenduak, sendimenduak... Dena. Leku zuri baten aurrean paratzea da, eta galderak egiten hastea. Noski, kanpotik izugarrizko eragina izaten dela, beste margolariengatik eta bizia beratik ere. Eta hor zaude, hortik atera behar duzu zure mamia, hau da interesatzen zaizuna.

T.T.- Bizia, lauki baten barruan ikusten al duzu? Eta errealitatea...zer da?

E.- Begira, nik dena nahastua dagoela ikusten dut. Behin lagun batek, galdera hau egin zidan: zuk mundua lauki baten barruan ikusten al duzu? Eta nik: ez, ez, bizia da bizia eta nik hori plasmatu nahi dut lauki batean, besterik ez. Adibidez, antzerkia ezin duzu pinturarekin nahastu. Pintura bat ez baita errepresentazio bat, pintura nere irudirako oraindik sakonagoa da, desberdina da, zintzoagoa da. Antzerkiaren bidez, gauzak handiagotu egiten dira, exageratu eta pinturan berriz, konkretatu egin behar duzu eta mementu batean dena sartu; dena dela, bizitzatik, naturatik esate baterako koloreak ikusten ditut, zeruaren horia edo belardiaren berdea, zein ongi dauden, hau honekin zein ongi doan eta hori bai.

T-T.- Beraz, Ester, marrazkilaria eta Donezteben bizi zeran emakumea, zein oztopo nabari dituzu zure inguruan?

E.-Iruñean egiten nuen bizia, hemen ere jarraitzen dut egiten, nere iritziak aurrera daramazkit. Hemen ikusten dena zera da, giro atzeratuagoa dela. Etxetik ateratzen naizenean eta jendearekin mintzatzen hastean, hortaz konturatzen naiz, ideiak kontrastatzeko eta jendea falta zaidala. Horrek ez du



erran nahi ez dagoenik jende interesgarririk, badago bai talde oso jatorra eta gaztea. Dena dela, nere bizitza normala da ez dut gauza arrarorik egiten eta tira, ez dut arazorik.

T.T.- Marrazkilaritzan estilorik baldin badago, zuk zer estilo duzula esango zenuke?

E.-Errealismoa, hori bai eta norbaitek ere erran dit pintura sozial dela, nere iritzia azaldu nahi dudalako sozial ikuspuntu batetik hain zuzen ere. Baina ez dakit, zeren termino horretan gauza anitz nahasten bait dira, normalki izen hori paratzen zaio pintura txina edo sobietarra egiten zutenei, Stalin ondorengo pinturari eta, pintura hori oso zuzendua eta errealismoa berriz nahiko irrigarria, kromotakoak eta horrela bait zen, itsusia. Eta hori errealismo sozialista da baina nere iritziz hori baino zabalagoa da, ni hor sartzen naiz, nere laukitan nere iritziak azalduz baina gizartekin lotuak.

T.T.- Marrazki bat egiten duzunean, zure behar bati erantzuten diozu, baina jendearengana atera nahi duzu, zer esan nahi diozu?

E.- Nik pentsatzen dudana, adibidez, orain dela hiru edo lau urte, emakumezko egoerari buruz aritu nintzen eta orduan nik ezin nuen emakume politak eta horrela, eserita leku elegante batean, ongi orraztuak eta horrela egin, ezin nuen. Nere laukitako emakumeak beti lapiko batekin, edo aurpegi tristekin azaltzen ziren. Eta orduan erraten zidaten: «nola margotzen duzu hori hain tristea?» eta nik: «Baina nola margotu behar dut andre bat? Nik margotu nahi ditudan emakumeak hauek dira eta. Horrela dira» egoera hura azaldu nahi bait nuen.

T.T.-Kolorekin eta horrela nola moldatzen zara? Ausartzen al zara?

E.-Kolore bakoitzak du bere bizia eta bere gauza erran nahi du. Profesional bezala ikasten duzu koloreak konbinatzen, elkartzen eta normalean ez dut lotzen koloreak polita egiteko, inpresio bat emateko, baizik. Laukia alaiak egin nahiez gero ezin duzu esate baterako, morea paratu, sikologikoki tristura eso horrelako zerbait adierazten digulako. koloreak ezagutzen dituzun ainean erabiltzen zoaz, besterik ez. Gero, kolore garbiak maitatzen dituzu, zertaz eginak dauden, profesional antzera begiratzen duzu eta zenbait gauzak begitako mina ere sortarazten dizu.

T.T.- Nola dago orain emakumeen pintura? Emakume asko ezagutzen al dituzu?

E.- Badaude, baina gutxi. Adibidez ezagutzen ditudala, bi ezagutzen ditut Iruñean, pertsonalki e! Badakit badaudela gehiago baina ez ditut ezagutzen. Orain oroitzen naiz, ni «Artes y oficios»en sartu nintzenean gehientsuenak emakumezkoak ginen, igual 30 edo horrela izango ginen ba h ietatik nik bakarrik bakarr jarraitzen dut. Besteak ezk ndu dira eta badakizu, ez dute pntzel bat ere ikutzen. Orain ezkonduak dira, besterik ez. Banuen lagun bat ni baino ausartagoa zena, baina maila guztietan, hau ere ezkondu zen eta hor bukatu zuen. Bere laukiak oso onak eta pintura konprometitua zen, orain zerbait egiten duenean pasaia politak, maitagarriak eta horrela egiten ditu, jolastuz. Oso kontent bizi da.

Beste marrazkilari horiek berriz, bi emakume horiek, oso jatorrak dira eta bere profesiokin fin ari direnak dira. Horietako batek esate baterako oso argi du ez duela gizonekin bizi nahi, ez duela ezkondu nahi. Gizonen itzala izan nahi ez duelako, hori ez delako bizia.

T.T- Mementu honetan zeintzuk dira zure gustoko marrazkilariak?

E.- Neretzat, bi era daude pintura ikusteko. Bat profesional bezala, ikasteko eta bestea gusto kontua da, hau da marrazkiak gustatzea edo ez gustatzea, eta horrek ez du zer ikustekorik anitzetan nik egiten dudanarekin. Jende normalari, lauki bat gustatzen zaio edo ez, baina nik batzutan ez gustatu arren ikusten dut marrazki ona dela, ongi egina dagoela, ulertzen duzu zer erran nahi zuen...etabar. Adibidez, Marianoren roilo hori, nik ezin dut egin bere pintura, abstraktua, espresionista eta hori ez da ne-

rea, baina ulertzen dut, eta gustatu ere egiten zait. Dena dela, oso pintura gutxi dago ona dena. Hemen, beste gauzetan bezala modak eragiten du. Orain, trasbanguardia, modernismoa eta horiek agintzen dute eta jendeak horretara jotzen du, horiek dira sariak jasotzen dituztenak. Horiek dira orain saltzen diren laukiak.

T.T.- Zein da zure kostante bat?

E.-Hori ere aldatzen joaten da. Baina, normalki sentimendu edo inpresio bat eman nahi dut. Garai batean, gure egoera nola plasmatu pentsatuz eta pentsatuz aritu nintzen. Egoera hori oso zabala zen, Euskal Herriko bizia, arazoak eta hori, baina gehiegi da. Orduan leku txikiagoan sartzea posible dela iruditu zitzaidan. Adibidez, orain errealitatetik ateratako zatiak ari naiz egiten, ate bat edo etxe baten aurrekaldeko zatia edo, eta hor nere koloreak sartzen ditut grisak, tenueak baina errealitatetik ateratakoak, nere estilorekin egiten dut hemengo giroa plasmatu.

Horrelako pintura hemengoa da eta gainera Iruñekoa dela esango nuke.

Iruñean, orain dela 12 urte edo horrela, Xabier Morras, Akerreta, Oses, Resano eta beste batzuren artean horrelako pintura egiten zuten, grisak eta, gure giroa baita, nik uste gure pertsonalitatea eta dena. Grisa, lasaia, hezia, hotza, harria... hortik doala iruditzen zait. Batzutan ere odola eta hori iruditu izan zait baina, hortik, biolentziatik ezin dut. Nahiago ditut gauza geldiak, jendea ateratzen dudanean beti dago geldi. Hori, ez dakit zergatik ateratzen zaidan horrela. Esate baterako, paisaiak ez ditut egiten, beti egiten ditut pertsonak erabiltzen dituzten gauzak edo pertsonak.

T.T.- Zerk bultzatzen zaitu marrazkiak egitera?

E.- Hori bai ez dakidala. Eta ez da bakarrik satisfakzio munduan sartzen zarela, baizik... beste mundu batean sartzen zara, arazoak behin baino gehiago eta frustazioak ere hurbil dabiltza. Pinturatik bizitzea gustatuko litzaidake eta hori ezinezkoa da. Eta hor jarraitzen duzu. Neretzat poz handiena erakusketa bat egitea izango litzateke mementu honetan. Eta hortan ari naiz, nere jaioterrian, Lizarran hori egin nahi bait dut.

T.T.-Donezteben, haurrei eta gazteei ere erakusten ari zera ezta?

E.- Bai eta jendea arrunt kontent dabil. Gauza ederra da. Helduak esate baterako, denbora pasatzeagatik etorriko dira, baina poliki ari dira, konturatzen dira erreza dela margotzea, teknika bat besterik ez da zuk gero zerbait esateko. Pixkanaka, pixkanaka gauzak esaten baldin bazoaz, zure burua argitzen baldin badoa, eta pinturaz baliatzen bazera zerbait esateko, ba ia lortu duzu, hori da. Gero arrastaka nahi baduzu joanen zara baina nahi duzuna egin dezakezu. Haurrak berriz, primeran pasatzen dute, horiek bai. Beste mundu bat da, desberdina. Baina, barruko gauzak kanpora ateratzeko balio du, libre izateko.

Arantza

HERRI TXIKIAK GALTZEN ARI DIRA

Bai, herri txikiak galtzen ari dira. Baina, zer gertatzen ari da?

Iturenen esate baterako, orain dela berrogei urte denetik zegoen, bazegoen botika, harategia, ogitegia, estankoa, aroztegia, lau denda, bost edo sei ostatu...Urteak pasatzen joan dira eta bata bestearen atzetik, zerbitzu horiek pikutara joaten. Horrela, botikarioa Iruñera joan zen hemen ez zegoelako etorkizunik. Harategikoak berriz, ez omen zuen ezer saltzen, jendea haragia erostera kanpora joaten zela eta..., horrela denak banan bana bere negozioa utziz joan ziren. Eta..., herritako jendea ez gara ohartu ere egiten herria galtzen hasi dela.

Zenbat lagun bizi ziren orduan, eta orain zenbat bizi gara? Orain lehen baino gutxiago noski!

Eta ez da Iturenen bakarrik gertatzen, inguru honetako herri gehienetan ere gauza berdina entzuten da, gutxitzen doazela, herria oila gelditzen ari dela.

Bestalde, badira bat edo beste indartu egin direnak. Horiek, lantegiak dituzten herriak izan dira. Lantoki ingurura bizitzera joan da jendea; herri handi horietan aisa arriskatzen ahal da, denda edo edozein komertzio paratzen, baina herri txiki hauetan... bildurra ere ematen du pentsatzeak. Bizia gogorra gertatzen ari da, lanik ez duenarentzat, lurralde txikia dutenentzat eta gaztea denarentzat, komeri gorria heldu da. Nekazariak ere, gaurko egunean hazienda anitz behar du bizia ateratzeko, ez du deus egiten hiru edo lau behiekin, pentsutako aina ere ez. Eta, esnea...ordaintzen dutenarekin...nora joan? Etxe zuloan eta oinutsik egoteko ere ez baita iristen.

Oraintxe, ez dugu beste erremediorik. Herria, herritarrok indartu behar du, elkar hartuz. HERRIEK EZ DUTE GALDU BEHAR. **Maite**



BEHIN BATEAN

Behin batean adiskide batek zergatik urte batez ehiztari izan zen kontatu zidan. Baita ehizea uzteko zein arrazoi izan zituen.

Ehiztariren batek lerro hauek irakurriko balitu eta eskopeta saltzera edo pixka bat pentsatzera animatuko balitz, pozik gelditukо nintzateke

Honela kontatu zidan adiskideak:

Ni sekulan ez nintzen ehiztaria izango baina nere lagun eta adiskideak hala ziren eta tabernan egoten ginenean ehizeari buruz mintzatzen genuen gehienetan.

Hainbeste entzunez, ehizean aritzeko paperak atera nituen eta haiekin hasi nintzen. Uso eta untxi bat hiltzen nuen aldiro, iluntasun bat sartzen zitzaidan. Animali haiek on besterik ez zidaten egiten eta orduan, zergatik hiltzen nituen pentsatzen hasi nintzen. Deportea egiteko baldin bazen trofeo triste bat besterik ez genuen ateratzen. Berendu edo afari bat egiteko baldin bazen, puxka bat merkeagoa aterako zitzaigun harategian haragia erostea eta horrela basoko animaliak pakean utziko genituen

Laino batetik mendi bateko historia filmatzea gustatuko litzaidake, gero ehiztariei erakusteko nola lehenbizian, mendi alaitsua ikusten den eta gero ehiztariak ibili ondoren mendi tristea agertzen. Ez dakit, basoko animalien bizitza eta jokuak, gustatzen ez zaion pertsonik baden. Hain polita izaki gure natura, gure animaliak eta horien aurka hasten gara tiroka. Mundu hontako animali handi-pandiena gizona da.

Basoko animali guztiak bizirik egotea garrantzi handia du nere ustez, baina ehiztarientzat ez! Ehiztarientzat gero eta animalia handiagoa izan orduan eta balio gehiago du eta gero eta eskasagoak berriz, gutxiago. Horrela gure basoak eta ohianeko animalia guztiekin eskala bat bezala egin dute: usoak, zozoak baino gehiago balio du; eperrak, usoak baino gehiago; basurdeak, eperrak baino gehiago. Orduan, nere galdera hau da: eskala horretan gizonak zenbat balio du? Ez nintzateke asko harrituko norbaitek, eskala horretan gizonentzat leku bat izan dedila esango balu. Zenbait animaliekin gauza batzuk harritzekoak dira baina gizonekin...

Honelako gauzak ikusiz eskopeta saltzea eta paperak ez berritzea erabaki nuen eta oso kontent nago geroztik, oraindik tiro bat ere bota ez dudalako.

XOKOLO

GAUR AURKITU DUDANA NAHIKO XELEBREA IZANDU DA

Liburu zahar orixta honek mila eginkizun bere magal urtetsuetan estaltzen ditu. Edozein orritan ireki ezkero, horbelak haizeak jota bezala, egatzen dira, jira-biraka, dantze itsu batean ibili ondoren, lurrera eroriz. Hemun sal-erosketak, gerrak, jokoak, lanak, tristurak, gorrotoak... suma ditzakegu. Gaurkoan 1835ko urriaren 13an gertatutakoa ekartzen dizuet:

Goizian, nere semia dendan utzi dut eta mendi aldera ateri naiz. Aizego ederra zagon, zerua goibeltsu eta orbelak erortzen asiak ziren. Suspela goiti Santa Barbara aldera jo dut. Nere zarreria ageri zait, ez baidut len bezin aisa malda ateritzen. Atsa estutzen zitzaidan, maizegi gelditu eta inguruak begiratu izandu tut. Inolaz ere uso pasa zen, naiz nere begi trixte ok etzidaten erakusten, dena laino batek artua bazala ikusten bainuen. Mendi alde onetan, karlista soldadukin topo egiten da: batzuek guardian, bertzeak etzanta edo Berara joaneto rrian, mandatuak daramatela.

Ez nituen errian bezin arro eta tente ikusten, loiaz zikinduak,arropak deseginak, flakiak janak eta gerra untaz aspertuak. Au ote da Sarasa brigadierrak errate? duen karlisten animua? Orrela gerrarik irauzi daiteke?

Miakatik premosa aldera jautsi , aiz. Juan Estebanekin egon nai nuen; Lapiztako estrata guruztu orduko zakurrak ateri zaizkit, otso eizikoak orañik saietsa idekiakin. Etxe antziñean Tomasa bokata jotzen ari zen eta senarra etorri arte berarekin solasean aritu naiz. Miseri gorria datorkigula zion, gerra burugabe unekin. Ez denentzat, noski, biñon nola erran neretzat ez dela garai txarra orrenbertzeko soldaduekin iñoiz biñon geigo saltzen baitut. Obe da ixilik egon.

Sarrixego itxeko jauna, oin utsik, galtza motzetan eta blusa zabal batekin jauntzia agertu zait. Bere arpegia ikatza biñon beltzagua zen: a, ze mairua!

Sagarrakin eta ikatzakin tratua egin dut: unetik bortz karga, datorren asteazkenian ekartzeko moduan bear dutela agindu diot. Sagarra, berriz, lurtik biltzen duen bezin abudo.

Itxerakoan, Zigardibereko Juan Estebanekin bi itz egin tut. Dolaretan sagarra jotzen ari zen, bme alaba Juana, laguntzalle. Muztioa probatu dut. Kupela bete bearra zeukan; Saldesbereko gaztea, Tomas, etorri denean, alde egin dut.

Egun otan kanpotar jende aunitz dabila; gaur aurkitu dutena naiko xelebria izandu da: bigote ederra zuena, gizon gazte bat, txaketa berde batekin jauntzia, kobrezko botoi eta guzi. Larun aldetik eldu zen, aita Antonio kaputxinoak laguntzen ziolik. Zuberotarra zela eta Lesakako Arismendi jaunaren itxerat joan nai zuela, erran dit.

Nere ustez karlista amurratua da, ez du Zumalakarregi bertzerik ikusten; gerra nork irauziko duenez, dudarik eztu; kristino beltz guziak erraustuko omen ditu. Galdemodu franko egin dizkit: gure bizitza nolakoa den, zein diren gure siñismenak, ia Aitor (èdo orrelako zerbait) izautzen nuen... eta eztakit zenbait geigo; denak burutan artu nai omen ditu, gerogo libru bat egiteko.

Nik, egia erran, ez dakit zer pentsAtu: jakintsua ematen zuen, biñon naiko arrarua eta kristautasunan kontrakoa.

Altzatan utzi tut, Bera aldeko bidea artzen zutelik.

Itxera alletu, makilla ate onduan utzi eta sukaldean lukartu naiz...

Gizon xelebreñau - Franzisko Arandiaren hitzetan- nor den maiz burura datorkit... Garai horretan Agustin Xaho, Beratik pasatu zela badakit, baina... eta gainera liburu bat idatzi zuela: «Voybge en Navarre pendant l'insurection des Basques» ... Bai ote?

Landaxoko
Iruñean, 1985ko Azaroak 26

ERROTAREN BERREHUN URTEAK

Klin-Klan, Klin-Klan,
ÑÑIII, RUUUUMMMM, Klin-Klan-Klon

Zoritxarrez, errotako soinua paper batean adierazteko abilitaterik ez dut, alajaina! Eta trebetasuna baina gehiago indarra eta mugimendua behar daa, zarata erdi-kantari eta irin-hautsa-euria erakusteko.

Beittu, ura, emeki-emeki, kanalez ailegatzen da; kanal zaharra du bide erasoa etb derrigorrezkoa.

Hirurehun metro barru, tunela bat, hiru konporta, bi sangria, eskape pila,... errekari lapurtutako uraren bidea. Lapurketa hitz gogorregia da egia esateko. Hobe litzateke gozamena deitu. Eta poliki-poliki, ia inor konturatu gabe batzuetan, besteetan zurrunbiloen erdian, betetzen ari, bidenabarrean urtarako seinaleak garraiatzen dituela.

Udaberrian hosto berde gox œak, apoak, poten,... udan indartsuagoak, berde ilunak, ... udazkenean horbelak, neguan adar eta enborrak. Eta beti, urtaroak errespetatu gabe, plastikoak eta haurrek bidalitako zikin-itsasontzikeriak.

Ura errotako paretan kontra dagoela, inork ez dezake pentsa ura zein indartsua den. Konporta ireki eta hantxen doa, zulo estutu bakoitzetik, aurrean harrapatzen duen guztia kolpatuz, eraginez.

Gizonek asmatu zuten, urdeak! indar hortaz baliatzeko medioa eta, horrela alferrik ez zaigu galtzen.

Izugarrizko abiadura ematen dio, urak, zurezko ardatz baten bitartez, goiko harri-erroberak mugitzen ditu. Aleak erditik sartzen dira, harri bien tartetik. Artoa edo garia, garagarra edo baba, irina bihurtzen da. Irin iturri ikusgarria.

Baina ez da, beti, hain erraza izaten. Errotak berrehun urte darama lanean, eta aldiro haserre berdinak. Lana gehiegi eskatzen zaiola, maitasunarekin ordaina eman gabe. Ez du apainketarik eskatzen, bai zera! umilki, bera elementuen kozponketarekin nahikoa du ados etortzeko.

Erreuma bada zaharren gaitza, gure errotarena hala da. Arto hezea jotzeko ez du indarrik eta horrelako janariak emanez gero, ahosabaian eta aho guzian itsasia, itxekia, geratzen zaionez, gelditu egiten da. Horiek izaten dira bere greba eta ortotsak.

Ez du, baita ere, pena handi bat, gaixuak. Lehen e an dugu: Berrehun urte. Baina ez da, ez, urte n ordoagatik kexatzen, gizasemeen zikintasunarengatik baizik.

Urteak joan eta etorri, behin ere huts egin gabe, lanean ari, eta aurten, bere berrehun urtemugan, ez da oparitxo bat ere, detaile bat. Udan, ardatz batzuk aldatu ziotenean, min gainetik poza sumatzen zuen. Oroituko ote ziren? Jaiaren bat antolatuko ote zuten bere oroimenez? Alperrikako esperantza.

Hasi dira denak artoa ekartzen, lanerazten, bainan ez dute ez astirik, ez betarik, ez gogorik, begiak ate gaineko aldera altxatzeko. Han dago argi eta garbi harrian senalatua, eraiki zen urtea: 1.785. Esan bezala berrehun urte.

Eta pena, susmo txarrekin nahastea da. Beldur dago, aurten, ohizko den bezala, errege bezperako bileran aurkako hitzak aditu direla. Ez du nahiko erraten! Ez da errentablea!... asto zaharrentzat denak makil!

Hala dira gauzak, aizu!

Zubietako AEK

EUSKAL HERRIAN GAUDE

Berako «Ridardo Baroja» eskolako klaustroak «Antrepoyecto de la ley del Euskara» delako aztertzeko, Azaroak 5ean bilduta, akordio hau hartu zuen:

Klaustro honen partaideek, alde batetik Nafartarrak bezala, beste aldetik irakasleak izateagatik, zera erran beharrean gaude:

-Nafarroako Gobernuak egindako «Anteproyecto de la Ley del Euskara» delakoa ez dela Euskararen alde egina, Euskara desagertzeko asmoz egina baizik.

-Euskaldunen eskubideak ez dira kontutan hartzen.

-Indioek jasatzen duten tratamendu berbera ezarri nahi digute.

-Administrazioarekin ditugun harremanetan gure Hizkuntzaz baliatzeko eskubidea dugu, besteak beste zergak ordaintzen ditugulako.

-Hizkuntz bat erahiltzeko metodo aunitz bada, hauetako egokiena (zapalkuntza baino hobeagoa) erabiltezina bihurtzea da eta aurreproiektu honek Euskera erabil ezinezko hizkuntza bihurtzen du.

-Orain arte Euskarak jaso duen errepresioa konpentsatu behar da, gure Hizkuntzak galdu duen indarra berreskuratu dezan.

-Iruñea gure hiriburua da, ez bakarrik erdaldunena.

-Nafarroan jatorrizko hizkuntz Euskara da, besteak inportatuak eta inposatuak dira.

-Hemen, Beran, Iruñean

Tuteran, erdaldunek Euskara ikasteko eta Euskaraz bizitzeko eskubidea dugu.

-Gaur egun Euskara hizkuntz minoritarioa bada, ez besteak baino guttiago delako, «minoritaria» bihurtu dutelako baizik.

-Gure nortasuna euskalduna da, beraz horrelakoxe izan behar du gure kultura eta hau ukatzeko inork ez du eskubiderik. Administrazioak hau kontutan hartuz, bideak ireki behar dizkigu.

-Erderak ez du Euskara baino ofizialagoa izan behar.

Artikuloz artikulo aurreproiektua aztertzea alperrikako lana da bere helburua lotsagarria bait da.

-Lege hau egin dutenek ez dute Euskaraz bizi garenekin kontatu.

-Euskara salbatu nahi badugu, ezin dugu lege hau onartu.

-Aurreproiekto honen aurka ateratzen gara eta antolatzen diren ekintza guztietan parte hartzea erabakitzen dugu.

Komunikatu hau Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroan hedatzen den prentsara bidaliko zaie.

Bera, 1985ko Azaroak,7.

Orain dela hogeitamar urte, gutxi gora behera, Malda-Errekako etxe gehienak bazuten bere artaldea. Orduan, jende anitz artzaingotik bizi bait zen.

Esate baterako, famili batean bi anaia baldin baziren, batek artzaingoa egingo zuen eta besteak etxeko lanetan (behiak moldatu, negurako egurra prestatu, alorrak moldatu etabar). Familia batek seme-alabarik ez bazuen mutil bat hartzen zuen artzaingoa egiteko.

Artzaingoan aritzen zena, udaberrian ardiekin mendira joaten zen, bildotxak saldu eta gero, hala ere batzuk artalderako uzten zituen. Mendian berriz, baziren eta badira oraindik ardi-bordak, h orietan egiten zuten bizia. Ardiei esnea kentzen zioten, gaztak egiteko eta bordan bertan idortzera uzten zuten,gero udan saltzeko.

Baina, artzainaren lanik handiena, ardiak ongi bazkatzea zen. Udazkenian berriz, mendira joateko.

Garai batean. lan hori gogorra izaten zen. Beti ardien gainean egon behar bait zen eta diru gutxi biltzen zen, gaizki bizitzeko gainera.

Orduan, gazte jendea Ameriketara joaten hasi zen, dirua egiteko asmoz urte anitz pasatzen zuten.

Batzuek dirua egiten zuten, besteak lehen bezain pobre etortzen ziren. Ameriketara ere, artzain joaten ziren. Baina han ere bizia hagitz gogorra zen. Milaka ardi zaindu behar eta urtean zehar inor ikusi gabe egon behar. Tarteka janaria eramatea joaten zena, beste inor ez, bakarrik zakur eta ardi artean.

Geroxeago, Ameriketara joan beharrez, Frantziako mendietara joaten hasi zen gazteria, zuhaitzak botatzera. Handik diru asko ekartzen zuten. Frantziako jornalak hemen baino altuagoak ziren eta dirua kanbiora gehiago ateratzen zen. Baina, lan anitz egin behar zen. Eguna argitu baino lehen lanean hasiz eta ilundu eta gero geldituz. Leher eginak joaten ziren lotara.

Mutil hauek, martxo aldera joaten ziren mendira eta elurra hastekin etxera etortzen ziren.

Geroago, lantokiak irekitzen hasi ziren eta jendea lantegietan sartu zen, batek baino gehiagok artaldea saldu du gero.

Erreka hau garai hontan, ia ardirik gabe geldi-tu zen. Bakar batzuk hutsa. Orain berriz, gauzak aldatu dira, lantoki batzuk itxi dira, besteak ez dute inor hartzen. Jendea berriz ere, ardiak eta beste haziendak paratzen hasi da.

Dena dela, artzaingoa orain lehen baino errezagoa da. Bazkak eta pentsua kerosten direlako. Horretaz gain, bildotxak eta esnea kendu ondoren, udan ar ak mendira bidaltzen dituzte, hotzak hasi bitartean eta artzaiak noizean behinka bakarrik joaten dira ardiak nola dauden ikustera. Hotzak hastekin berriz, belagitara sartu, idorra eta pentsu pizka bat emanaz pasatzen dute negua.

Alejandro.

ZAHAR HITZ, ZUHUR HITZ.

Bazkari bukaeran ardorik gabe gelditu ginen. Mendian ur anitz bada, baina gasna jateko, nik beti nahiago dut arnoa, hala ba, hasi nintzen bertze baso guztien ondarrak nerera botatzen, eta hau ikusiz nere ondoan zenak irri erdi betekin esan zidan:

-«Bai, bai, pixarka pixarka, azkenean andarka.»

Ateraldi honek grazia handia egin zidan, baina era berean ohartu nintzen esaera hori egi handi bat zela.

Eta holaxe, ohartzen bagara pixko bat, gure hizkuntzak baditu anitz esaera zahar gure kontsiderazio merezi dutenak. Begira, ikusiko dituzue batzuek.



Badira zenbaitzuk aski serios eta filosofikoak:

-Seme, lan egizak, beti bizi behar bahu bezala, eta bizi gaur hil behar bahu bezala.

-Egiak noizean behinka xistatzen du, gezurrak gehienetan larrutzen.

-Gezurrak ez luke sineslerik, ez balu egiaren itxura zerbait.

-Gezurtiak zer du merezi? Egia erraitean ez sinetsi.

Beste batzuk irrirat ematen dute, baina ez uste, badute...

-Berez ez dena, apaindua ere ez.

-Ez izan eta bai uste, kakaxiloko jaun gaztea.

-Gauean berandu, goizean maingu.

-Lehengo xaharren hiru deabru: ohean itsaxura, zerri joareduna eta andre muxtaxduna.

-Elkarrizketan ere agertzen dira holako esan moldeak:

-Kutxua bezain kuriosua.

-Abenduko ulia baino lotsagabegoa.

-Zorria baino lotsagabeagoa.

-Zakurraren muturra bezain hotza.

-Horri ere atxeman diote ipurdian xilo.

-Galtzak ere salduko lituzke, zurrutaren truke.

-Adiskidetuko dituk, oiloak arroltze beltza egin orduko.

Orain bezala lehenago ere bakoitzak berea ongi zaitzen zuen:

-Bat eman eta bi hartu, gure etxean ez berriz sartu.

-Ikastak ematen oroitu gabe, eta hartzen ahantzi gabe.

-Bereak bere, bertzeenak erdizka.

-Emaitea on, hartzea hobe.

-Emaiten duenak, ordaina ikusi nahi.

Zugarramurditik



Eguzkiaren kolore gorrixtak
gaineztatzen direnean
berriro ere, zera esan nahi dut....
dena berritik hasitzen dela dirudi
gure oroimenak berpizten dira,kobrezko ur jantziak bezala
sortzen dira, begiradak, nahikoak musua ondorioztatzeko
giza-kantu sendo bat bezala.
Oroimena ez da nerea,
a; otsa bilatzen
berriro ere, zera esan nahi dut...
beti berarekin egotea desiratu izan dut
baina badakit, ez zaiola maitasunarik gelditzen niri emateko.
Nahiz eta berak ni ez desiratu
nere bihotzaren pean eduki izan dut, nik bera
eta ukitu dut bere gorputz hobezina
horregatik, momentu bat gehiago, gelditu nahi dut bere ondoan.
Gero, ixiltasunak jaiotzen direnean
aldatuko dut ni re odola
bere gorputzaren zentroaz pentsatzeak sortzen didan eromenak
gainetik kentzearren.

«LIBERTAD,no conozco sino ta libertad de estar preso en alguien».
L. Cernuda.

Ordua da lotzen gaituen bizitza ulertzeko, honengatik nahi nuke indarkeri gehiagokin sutu eta desegin nere halabeharraren kezkak. Baina, pentsakizun bat besterik ez naiz, irekia den ate bat naiz, atarian eta ixilpeko zokoetan gelditzera mugatzen ez dena. Bizia dantzarazteko adina musikarik ia ez zaigu gelditzen geure barruan. Gaur egun gazteria gauza txarrakin mehatxatua dagoelako: Langabezia, errepresioa, droga publizitarioa, gosea...

Munduaren bukaeran hiltzera kondenatzen gaituena egiaren ixiltasunean, inoiz bukatzen ez den hilzorian.

Gaurko gazteei beti zalatatzen gaituzte legeak
borrokan egiten ditugun bideetan.
Aldatu nahi dugu, bizi mundu hobeago baten egituretan parte hartu
zeren orain gu gara horizonterik gabeko mundu berria
galdu eta zapaltzailea den gizarte honetan
ez dugu kondenaturik egon nahi
bazterretan zelatu eta erahiltzen gaituen poliziaren beldurraren kramaileak
Non dago eguneroko zihurgabetasuna?
inon harrapatzen ez dugun ilusio hori
bizi hobeago bat eginen du
elur tiro batez iritxiko zaigu
argi puntu bat gainean irekiko duena.

LANGILE ALPERRA

NIKOLAS

Badira beserritar langileak, eta izan edo ez izan, beti hori sinesten dutela esan genduen, lantegietakoekin beste sakontasunean sartzen gara. Beste istorio bat da, arraso ezberdina. Hasteko, giroa arront diferentea da, batez ere batak etxerako -gehien bat- egiten duelako lana eta besteak auskalo norendako.

Gaur egunekoa hartzen badugu ikus dezakegu nola nekazari batek -oso berezia ez bada behintzat- behin ere ez duela bere lana ukatzen. Lantegietakoek berriz, eta jeneralizazioan ari naiz, ia ohorezkoa dute ahal den lan gutxiena egitea. Eta lantegietakoekin hiri giroa aipatzen da: «Lanik ez egitea edozein gizoni gustatzen zaio» dio AEK-ko ariketa batek. Eta ez dut uste generazio asunto hutsa denik. Lehen ere alperrak bizitu izan dira, ez?

Nik behintzat, kasu bat baino gehiago ezagutzen dut, gizon helduak, zaharrak, gerra inguruko belaunaldikoak. Hauek noski, ideolojikoki ez bazuten onartzen ere , allperkeria, bizimoduak eraginez edo, ... transizioa? Zeren gaur edozeinek esaten du ez duela lanerako gogorik, lanik ez duela egin nahi,... Estatu bera burua jaten ari zaigu. Batan kiniela, bestean Q.H. edo primitiba...

Transizioa ikusteko adibidera jo dezagun:

Bixente tipo berezia zen. Hain zen berezia denek bere ispiluan zer ikusirik bazutela. Zuk eta nik zer esanik ez! Baina bere berezitasunetatik lan aldekoak azalduko ditugu bakarrik, TTipi-Ttapa osorik ez hartzeko.

Hamalau urteekin hasi zen lanean, 1929 inguruan. Izaten dira ba, enkarguk eta egiteko mutiko batzuk? Ba horietako bat zen... 1978an erretiratu zen, erretiro aurreratua, enpresako krisisa zela eta. Bitarte hortan eta, esan behar baita, mutiko izateagatik erdi mailako administratibora ailegatu zela. Gaizki al dago? Bera ez zegon konporme. Esaten zuenez, bere izerdi guztiak besteen poltsan baitzeuden... Lana besterik egin ez eta dena goikoentzat... Hainbeste lan, azkenean, aspertu egin zela, hasarretu ere, eta inork noiz eta nola jakin gabe, bere langela eta lan orduak izugarri bereziak bihurtu zituen.

Beheko pisuan ziren bulego orokorrak, administratibo arruntak eta lehenengo pisuan bere langela, galeri antzeko pisu batetan, eskailera aurrean.,ia-ia.

Ba, ez inor kontrolatzeko baizik bera deskontrolatua egoteko... langelaren erdian jarri fitxero batzuk eta erdibitu zuen gela. Ispilu eder baten bitartez ate aurreko mugimendua ikusten zuen, eskailera eta galeri puska eder bat.

Montaje hau eginez -enpresarioak ergel batzuk zirela aspaldi erabakia zuen- ez zen hura langela normala, bai zera! Arrunt pertsonala! Hura, Bixenteren langela zen!

Egunero, sartu eta berehalaxe, kentzen zituen Bixentek kaleko arropak eta pijama batez apaintzen zen. Pijama, jertsea, eta gerrian bertze jertsea loturik, giltzurrunetatik kexatzen bait zen: bat-bi, bat-bi-hiru, gimnasia ordu erdi bat, arnas soinu ederrez lagunduz: hamar minutuko dutxa langela bertako komunean. Bene benetan ari naiz. Ez dut sekulan halako gizon garbirik ezagutu. Adibide

bat emateagatik, egunero sei aldiz garbitzen zituen hortzak. Otordu bakoitzean bi aldiz, kafe aurretik eta atzetik: aurrekoa kafia ongi dastatzeko, atzekoa auskalo zertarako, zeren, egia esateko, hortz-garbea zen eta hortzorde batez baliatzen zen. Hori bai, hortzordeak ere, bere andrearen desesperaziorako, gauero-gauero lejia uran edukitzen zuen, bere ohe ondoko mahaitxuan.

Desbideratu naiz dexente, eta berriro lan asuntura jo beharko dut. Familia ugari baten buru zenez, bizi guztiz «pluriempleo» madarikatu hortan aritua zen eta -adineko gauza izango?- ondarreko urteetan, lantokikoak lanez eta nekez lortzen zuten, zutenean, zerbait bereganatzea, zeren... komunetik ateratzekin, langelan bertan zuen kopiadora martxan jarri eta bigarren lan horren beharrak betetzen zituen. Hori bai, eta justiziakoa denez azaldu behar, kasualitatez egiten bazuen lan bat, nahiz bakan izan, bikaina eta ikusgarria izaten zen. Ona benetan!

Eguerdi aurretik, askoz ere aurreagotik, jasotzen zituen materialak, garbitzen zen, apaindu eta ordu batak punttu punttuan kotxean zegoen. Etxera ailegatu, garbitu berriro ere, bazkaldu, hortzak garbitu, kaka egin eta lan aldera...

Arratsaldeaz ez zuen gimnasiarik egiten eta, orokorki, lan gehiago ateratzen zuen, kopiadora ez bazitzaion urratzen,... telefonoz bere erosle partikularrekin aritu behar ez bazen edo kotxeren aberi bat... Hiru posibilitate hauetatik hirugarrena zen, zalantzarik gabe, lankideak gehien ikaratzen zitunak, ez baitzen behin ere konforme gelditzen. Pentsa, kotzea erosi baino lehen, bigarren eskuko Ducatti zahar bat eduki zuen eta, kasik igandero, motor osoa despiezatzu, gasoilekin garbitu eta birmontatu egiten zuen...

Total, ohartzen bazara ez dugu alperra deitzerik, langile alperra... Hobe genuen langile berezia izenpetu, enpresatik urrundutakoa...



BIDASOAKO BERTSO PAPER LEHIAKETA

Gaia: BORTZERRIAK

Doinua: Pello Mari Otañorena.

«Mutil koxkor bat itsu zurreko
zuela aldamenian
gizon buru soil bizar zuri bat
bi makuluren gainian»

1.
Lehiaketa dute antola
bertsoak harturik aintzat,
gaia hartzeko eskubidea
ere utzirik guretzat.
Aukera hauek onak dirade
bertsotarako niretzat,
-bortzerritako gora-beherak
azalki harturik gaitzat,
agian ez dut asmatzen baina
saiatuko naiz behintzat.

2.
Bidasoaren albotik jarrai
eta eskubiz gorantza,
ugari daude inguruneak
ez da uste bezain motza.
Hegoaldean bista daiteke
mendi erraldoi zorrotza,
Mendaur ondoan duelarikan
Urruti dago Ekaitza,
mendi tartean kuzkur daukagu
pollit basati Arantza.

3.
Besterik egon arren baserriz
hok egoera murritza,
nekazarien bizia baita
askotan latz eta bortitza.
Pago zumarra lizar ta txara
nagusi berriz haritza,
animalien atzetik lanen
gora-behera dabiltza,
aberatsak ez diraden arren
goxo Arantza bizitza.

4.
Muinetan daukat aski sarturik
ez zait inondik ahantzi,
bertatik behar baitut pasatu
sarri bihar eta etzi.
Negua hotza iragan arren
ez izorratua utzi,
udaberrian lore politez
txukun dotore da jantzi,
bortzerritako zoragarrina
dudarik gabe Igantzi.

5.
Zokoan triste gorderik dago
busti beltza eta ilun,
Bidasoaren ondoan bizi
da samur goxo eta leun.
Biztanleak ez ditu egari
larogei bat edo ehun,
izena oker diote eta
ea zuzendu dezagun,
«Ventas de Yanci» jartzen dun arren
jatorrizkoa Berrizaun.

Patxi Larretxea (Arantza). Lehen saria

Assura

6.
Mendi artean dago ertsirik
sartzen gerade zeharka,
korrika iges ezin eginez
geldurik ia abarka.
Atzetik dator morruka eta
bortiz zezena adarka,
«San Fermin» jaiak heldu orduko
jende guztia daldarka,
parrandalari txit ospetsuen
herria dugu lesaka.

7.
Lesakaldean aspaldi dugu
industrigintza nagusi,
emigranteak lana bilaka
etortzen zaizkigun hasi.
Gero zitzaigun Euskara ere
erdararekin nahasi,
gure hizkuntza eta kultura
nahitaez behar eutsi,
herri guztia bir-euskaldundu
arte ez dezagun etsi.

8.
Mendiak pinuz estalirikan
larrean ainar etalar,
Sorotan aurki daiteke erruz
janaria eta belar.
Baztertxua dagoen arren
ez galdua edo bakar,
hango menditan dira mugatzen
orain hego eta ipar,
kontrabandista asko bizi den
herria dugu Etxalar.

9.
Zibilak nahi dute eraiki
Kuartel haundi berria,
hori litzake lortzen badute
benetan penagarria.
Etxe politez alaitsu dago
Etxalar ikusgarria,
uda garaian berdexka hori
udazkenean gorria,
ez dezagun utz izorratzera
hain polita den Herria.

10.
Gipuzkoatik gatozenean
kotxez Nafarro aldera,
ezkerretikan Zalain utzirik
derrigor pasatzen gera.
Erreka-txukun zoragarria
bistatuz lasai honera,
lendabiziko herria dugu
leku lainotsu hozpera,
bortzerritako haundina izena
du Bidasoako Bera.

11.
Bera da herri luze samarra
dago sakabanatua,
kale baserriz eta ostatuz
aski ongi ornitua.
Errepidez da goitik behera
erabat gurutzatua,
Ibardin eta Lizuniagan da
muga gogor ezartua,
Iparraldeko atea dugu
ikusiko zabaldua!

12.
Hementxe ene hamabi bertso
alegin guztiz jarriak,
hau ta gehio ere merezi
dute noski bortzerriak.
Gure-Txokoa elkartekoak
azaldu idei berriak,
lehiaketa hauek dirade
jarraibide egokiak,
ibai honetan erruz sortzeko
bertsolari on-trebiak.

ASMAKETAK

Urte astean lodi eta bururtzean argal.

eguteguia

Kenduz handitzen dena.

zuloa

Irekirik teilatua, hertsirik makil.

etiatakoa

Hatsa bai eta gorputzarik ez.

puzkerra

Bi mendiren artean karraskan doan trena.

puzkerra ere bai

Bixia baina ez da piperra, bizarra badu eta ez da kaputxinoa.

baratxuria

Kutxa ttiki bat aizkoraz beterik.

ahoa

Ipurdiarekin zangorik ez, gorputzarekin besorik ez, lepoarekin bururik ez.

botila

DIOSTESALBEKO KOPLARIAK MUTU?



Batek daki nola, eta Joxejuan bertsolariak joan den urteko Ttipi-Ttapa batean ongi erran zuen bezala «konturatu gabe», baina kontua da ttipi-ttapa edo ttiki-ttaka denbora aintzinera doaiela, gelditu gabe, «dozena bat hilapasata hor dugu urtia», eta urtearen akaberan Eguberriak. Naturak sasoi honetan adierazten duen aldaketa lur honetako gizon-emakumeek ere nabaritu izan dugu mendez-mende, urtez-urte. Eta dela sinismenek hala agintzen dutelako, dela nik ongi ezagutzen ez ditudan beste arrazoiek hala behartzen dutelako,... ondorioz halako ospakizun kolektiboak gertatzen dira gure lurrean neguko solstizioaren inguruan, urte bati «adio» eta hurrengoari «ongi-etorri» erraten diegunean, alegia.

Alkaigako «Zelai»ko haritz zaharrak baino zaharragoak izanen dira, dudarik gabe, gure gaurko egunak arte ailegatu diren ospakizun hauek. Hor ditugu, bertzeak bertze, Olentzero, Glin-Glan, edo Diostesabe. Horiekin batera, eta horien inguruan, Elizak agintzen dituenak dagozi: Jesusen Jaiotza, Erregeena,...anitzetan ustez oinarri herritarrago eta zaharragoaren janzkera edo apainketa berriagoak direnak.

Aipatu ditudan lehendabiziko hirurek elkarren antz haundia agertzen dute. Alegia, hiruretan formula berbera errepikatzen da: gazte taldeak atez-ate ibiltzen dira, kopla edo bertsoa kantari eta kanta bisita horren truke nolapaiteko ordaina eskatzen dutelarik. Denbora joanaren itzala gure herrietako kaleetan barrena hedatzen da brusa beltzez eta kapeloz, abarka eta galtza

urdinez, farolaren argitan. Abots gazteek aspaldiko kantak zabaltzen dituzte lau haizetara guttik ezagutzen duten hizkuntza zaharrean. Ongi entsaiaturiko kantak. Gure aita-aitatxiek jarritako koplak. Gustora ikusten den bizpairu ordutako ikuskizun pollit eta inportantea.

Ibilbideak, ordea, bere akabera du, eta inportantzia ttikiko erritoari segituz tapa sendorreko kutzan gordeko dira, heldu den urte arte, blusak, kapeloa, abarkak, galtzak,...eta koplak.

Horrela kutsak museo bihurtzen dira eta bere baitan gordetzen dituen guziak fosil. Eta janzkerarenak transzendentzia haundirik ez badu ere, koplek beren izateko arrazoia galtzen dutela erratera atrebitzen naiz.

Urte-Zahar eguneko Diostesalbeko koplen kasua gure herrietan (Beran, Lesakan,) da horrelako baieztapenak egitera bulkatzen nauena. Orain dela hogei-hogeitabortz urtetako erreferentzia hurbilak, eta orduko testimonioak nostalgiaz solasten zaizkigu erranez garai hartan koadrila mordoxka ateratzen zela kale-etxe eta baserri, bakoitzak bere koplari inprobisatzailea zuelarik.

Nolako etxea halako kopla, nolako umorea halako ziria. Hori baita izan beharko lukeena, ohitura zaharrak kopla berrietan.

Orain dela bortzpasei urte saiatu ginen gure koadrilakoak Diostesalbek hain berezkoa duen kopla berriak kantatzearena berbizten. Larun Labiaga tarteko auzoetako baserritarrek harrituriik begiratzen gintuzten ilunpetatik agertzen ginenean, zahatoa bizkarrean eta xinparta begietan, builak. Bizpahiru urtez ateri ginen gisa horretan ta ondotik ixildu ginen gaurregun arte. Kopla zahar ikasiekin batera guk eginiko berriak kantatzen genituen, eta tarteka bakarren bat inprobisatzera ere animatzen ginen, ospakizunari zegokion bizi berria itsatsiz.

Elurrak ez digu huts egin, ezkeroztik, bere urteroko bisitan. Bago gazte bat ere landatu dugu Labiagako kaxkoan. Denbora (hor zegok koxka, Joxejuan!) joan egiten da, eta etorri ere bai. Bertan ditugu aurtengo Eguberriak. Ez naiz ni ere urteroko zitara faltako, herri haunditik herri-xokora arrimatuko naiz, eta betiko janzkera kopla zaharrak kantari ikusiko ditut herriko lagunak. Hortxe dagozi, ikusten ditut! Horra ttikia erran! Hekin tartean batzuek kopla berriak kantatzen! Posible ote da?

Agian bai!

DIOSTESALBEKO KOPLA ZAHARRAK...

Diostesalbe ongi etorri
gabon Jainkoak dizuela
legearekin kunpli dezagun
Urte Berriaren bezperan.
Alabatua bedeinkatua
da Sakramentu santua
pekatuaren mantxarik gabe
Birjina kontzebitua.
Alkate Jaunakir egondu gera
gaurko arratsaldian
lizentzia ere gurekin dugu
ibiltzeko eskian.
San Silbestrek ekarria digu
izar ederra gidari
gaurko gaba hemen pasa dezagun
ate onduan kantari.
Urre gorrizko bizarra eta
diamentezko espalda
berorri bezain gizon prestorik
herri honetan ez al da.

Agur etxeko nagusi jauna
txapela dut erantzia
aurengandikan behar dugu
kantatzeko lizentzia.

Zapata xuri pauperez
busti ezkeroz baterez
nagusi jauna erraziguzu
hasiko garen edo ez.

Urte Zaharreko gabian
gabiltz lengo legian
gazteak hemen heldu gerade
guztiak umildadean.

Urean eder txalanta
airian eta galanta
itxe huntako itxeko andria
alferra eta gormanta.

Zeruan eder izarra
errekaldian lizarra
itxe huntako nagusi jaunak
urre gorrizko bizarra.

Horrako hor goian errota
irina leun jota
itxe huntako itxeko andria
Ama Birjinan debota.
Nagusi jauna barkatu
etzaitut ongi koplatu
koplari onak baziren bino
ez dire herrian gertatu.

(Ikus daitekeenez neurri
eta errima aldetik bi
kopla mota diferente dira
Diostesalberako gure
herrian usatzen direnak.)

...ETA BERRIXEAGOAK

Diostesalbe herriko jende
hemen dizuegu geuria
preso guziak nahi dugu
abudo kaleratzia.

Urte berria hemen dugu ta
hau erran nahi genuke
Koplak kantatu behar ditugu
ardo tragoaren truke.

Beitik goitira euria ari
ez dut ikusi oraindik g.z. ta p.....
joan ditezela hemendik.
Hemen gabiltza lau ero
sudurra bero bero
neskatx polita kortejatzera
etxe honetan balego.

Kodrila hontan gainera
neska prestuak bagera
etxe huntako mutil ederra
datorrela atera.

Pinu tokia pinadi
bago tokia bagadi
haritz tokia hariztegi
Nafarroa da Euskadi.

Doinua: Neska zahar bat tentatzen (Txirrita)

BAZTANGO GIROA

R.Ordoki

1. Baztango ikastola
jartzeko espero
dirade gurasoak
plazan egunero
ta kontrako jendea
agertu da gero
oihu horiek entzun
behar zuten maizero.

2.
Noizpait jarriko dugu
martxan ikastola
bestan utziko dugu
Orain burruka doa
guztiok odola.
nola edo hala
ez baituzte botako
hemendik inola.

3.
Oraindik egoera
da nahiko iluna
borroka batzuentzat
bihurtu da astuna.
Euskadi egiteko
guztiz euskalduna
ailegatuko zaigu
benetan eguna.

4.
Zerri asko dagola
ibiltzen hemendik
ikuluak utzi ta
dabiltza kaletik
deia egin diete
Udaletxeatik
zerriak nahiago du
ezkurra duen mendik.

5.
Gezurra dirudila
hemengo kasua
hainbertze ignorante
zerri ta astua.
Erderazale dira
bai amorratuak
eta euskaraz mintza
dirade tratuan

6.
Hasieran uste nuen
ziradela zarrak
eta horietatik
kaxkar-kaxkarrenak
azaldu ohi direnak
dira harroenak
Baztango gazta zaharrak
du barruan arrak.

7.
Euskaraz mintzo eta
erdararen alde
zihur nago gauz hori
Ez dela debalde
diru kontuan beti
nagusi alkate
hontan aterako da
berriz Iturralde.

A! ZURI DEITZEN

Nere barneko iluntasun hun-
tatik,
malkoa darian
bihotza urratuarekin,
sendimentuak odoletan,
maitasuna ezin kontsolatuz,
deitzen zaitut.
Deitzen zaitut
itxaropena urrun ikusiz gainetik;
deitzen zaitut
zure hitzak, zure begiradak,
zure lilurak
nere ondoan sentituz;
deitzen zaitut
oihuka, negarrez, lotaz,
solasez, ixilka, deitzen zaitut...
Baina nere deia alfer dago,
bakarrik entzuten nau
ixiltasunak, bakardadeak, eta...
errealitateak,
errealitate ikaragarri hunek,
errealitate zentzugabe hunek.
Eta zu,
zu ixilik,
egun hartatik, beti ixilik,
beti ixilik.

Zugarramurditik.



Katu gaixoa

arratsalde batean, Pello izena zuen
mutil txiki bat, ardiak lizera ekartzera
joan zen, sarian
miau miau! aditu zuen,
Pello geldirik gelditu zen.
Ulgar hura katu gaixo batena zen,
Laguntza nahi zuen. Artean sartuta
Zegoen. Mutiko on hark bere
sentimentu guzikin ateratu zuen.
Katuak, gaiez beterik zegoen, eta
arras triste ikusten zaion. ¡gaixoa!

Pello Ziga

INDARREZ ARMADAN SERBITU BEHAR

ETA ZURE NAHIAK DIRU MENPEAN.



125 pzta.

SALDIAS

Imprime Garrasi. D.L.: NA 1324/85